

Asiloa Europar Batasuneko Zuzenbidean

Zuzenbideko Gradua 2015-2016 ikasturtea

EGILEA: Ainhitze Etxeberria Larreina
TUTOREA: Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena

AURKIBIDEA

SARRERA	4
1. ASILOA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAN	5
1.1. Errefuxiatu kontzeptua 1951-ko Genevako Konbentzioaren arabera.....	6
1.2. Errefuxiatu kontzeptutik ezberdindu behar diren kontzeptuak.....	11
1.3. Ez-kanporatzeko obligazioa: Ginebrako Hitzarmeneko 33.artikuluaren arabera.12	
2. ASILOA EUROPAR BATASUNEAN.....	13
2.1 ASILOAREN KONTEXTUA: ASKATASUN, SEGURTASUN ETA JUSTIZIA ESPARRUA (ASJE).....	13
2.1.1. Bilakaera historikoa	15
2.1.2. Ezaugarriak	17
2.2. EB-REN KONPETENTZIA ASILOAREN GAIA: JATORRIZKO ETA ERATORRIZKO ZUZENBIDEA.....	19
2.3. ASILOA JATORRIZKO ZUZENBIDEAN.....	21
2.3.1. Sarrera.....	21
2.3.2. EBFI 78.artikulua	22
2.3.3. EBOEG 18.artikulua.....	23
a) Asilo eskubidearen funtsezko edukia.....	25
b) EB-ko nazionalen asilo eskaerak	28
c) EBOEG 19.artikuluko ez-kanporatzeko obligazioarekin lotura	29
2.4. ASILOA ERATORRIZKO ZUZENBIDEAN	30
2.4.1. Eboluzioa	31
2.4.2. SECA	33
2.4.2.1. 604/2013 Erregelamendua “DUBLIN III”	35
2.4.2.2. 2013/33/UE Zuzentaraua, ekainaren 26koa, Harrerako baldintzak ezartzen dituen	36
2.4.2.3. 2013/32/UE Zuzentaraua, ekainaren 26koa, nazioarteko babesaren inguruan gutxiengo prozedura komunak ezartzen dituen.	38
2.4.2.4. 2011/95/UE Zuzentaraua abenduaren 12koa, errefuxiatuen eta babes subsidiarioaren onuradunen estatutua arautzen duena.....	39
2.4.2.5. 603/2013 Erregelamendua “EURODAC”	40
2.4.2.6. 2001/55/CE Zuzentaraua ekainaren 20koa, aldi baterako babesa arautzen duena.....	40
2.4.2.7. 439/2010 Erregelamendua maiatzaren 19koa, Asiloa Laguntzeko Europako Bulegoaren (EASO) sortzen duena	41
3. EBJA-ko EPAI GARRANTZITSU BATZUK ASILOAREN GAIAN.....	42
2011ko abenduaren 21eko N.S eta M.E. Sententzia (C-411/10 eta C-493/10) tortura eta tratu anker eta apailagarriak jasateko debekua eskaera aztertzeke orduan erantzule den estatua zehazterako orduan	43
2012ko irailaren 27ko CIMADE eta GISTI Sententziak (C-179/11) eskatzaileen duintasunaren inguruan harrerako baldintzen dagokienean.....	45
2014ko abenduaren 2ko A B C Sententzia (C-148/13tik C-150/13ra) pertsonen duintasuna eta bizitza pribatu eta familiarra izateko eskubidea errefuxiatu estatutu edo babes subsidiarioa emateko baldintzekin harremanetan.	46
ONDORIOAK.....	48
BIBLIOGRAFIA	50

SARRERA

Gaur egun asiloaren gaia pil-pilean dago Europar Batasunean Greziara iristen ari den jende masa dela eta. Duela aste batzuk EB-eko 28 estatu kideetako liderrek eta Turkiak akordio bat sinatu zuten, martxoaren 20tik aurrera batasunera itsasoz ilegalki iritsitako pertsona guztiak nazioarteko babesa izan ezean Turkiara itzuliko direla adostuz. Akordio hau egin arte estatu kideak ez zuten lortu inongo adostasunik, izan ere, batzuek, Espainia barne, ez zuten obligaziozko harrera mekanismo iraunkorrik ezarri nahi izan eta azkenean oso negatiboki kritikatu izan den akordioa sinatu zuten.

Orduetik uharte greziarretan dauden bost errekonozimentu zentroek (orain atxiloketa zentro bihurtu direnak) 7000 pertsona baino gehiago hartu dituzte.

Gaineratu behar da, Europar Batasunak orain arte errefuxiatuen krisian eman duen laguntza ekonomiko eta pertsonala oso txikia izan dela. Asiloa Laguntzeko Europako Bulegoak (EASO) eskatu dituen 374 adituetatik estatuak bakarrik 84 eskaini dituzte, eta Siriako fondo fiduaziariorako eskatutako 500 milioi eurotatik 18 milioi besterik ez dituzte bildu.

Asilo eskaerek 2011.urteko Siriako gatazkaren ondorioz nabarmen egin dute gora mundu osoan. Interesgarria da ACNUR-ek eman duen datua honen inguruan, 2014.urte amaieran 1,8 milioi asilo eskatzaile zeuden munduan eta %78 (993.600) egin zuten gora 2015ean. Hori gutxi balitz, errefuxiatuen zenbateko totalak azken lau urteetan nabarmen egin du gora, 10 milioitatik 15,1 milioitara iritsiz azken 20 urtetako altuena izanik¹.

Egun, izugarriko asaldura politikoa dago errefuxiatuen gaietatik baina munduko gainontzeko lekuetan zenbat errefuxiatu daude? Errefuxiatu gehien dituen lekua Afrika Sub-sahariarra da 4.1.milioirekin, Asia eta Pazifikoa datoz ondoren 3.8rekin, Europak 3.5 milioi errefuxiatu dauzka eta Afrika erdi-ekialdean eta iparraldean 3 milioi errefuxiatu daude. ACNUR-en hurrengo taulan argi ikusten da:

UNHCR regions	Start-2015			Mid-2015			Change (total)	
	Refugees	People in refugee-like situations	Total refugees	Refugees	People in refugee-like situations	Total refugees	Absolute	%
- Central Africa and Great Lakes	625,000	37,600	662,600	865,100	13,700	878,800	216,200	32.6%
- East and Horn of Africa	2,568,000	33,400	2,601,400	2,713,700	33,600	2,747,300	145,900	5.6%
- Southern Africa	174,700	-	174,700	179,800	-	179,800	5,100	2.9%
- West Africa	252,000	-	252,000	258,900	-	258,900	6,900	2.7%
Total Africa*	3,619,700	71,000	3,690,700	4,017,500	47,300	4,064,800	374,100	10.1%
Americas	509,300	259,700	769,000	501,000	251,900	752,900	-16,100	-2.1%
Asia and Pacific	3,568,500	280,100	3,848,600	3,506,600	278,400	3,785,000	-63,600	-1.7%
Europe	3,095,000	18,200	3,113,200	3,475,300	14,300	3,489,600	376,400	12.1%
Middle East and North Africa	2,898,500	65,400	2,963,900	2,941,100	64,200	3,005,300	41,400	1.4%
Total	13,691,000	694,400	14,385,400	14,441,500	656,100	15,097,600	712,200	5.0%

Note
* Excluding North Africa.

¹ UNHCR Mid-Year Trends, June 2015

² Aipatutako datu guzti horiek OIM-eko web orrialdean eskuragarri daude ingelesez:

2016ean errefuxiatu eta immigrante asko iritsi dira Europara Mediterraneo itsasoan barna, baina Europar Batasunak orain arte ez du jakin izan erantzun bat ematen jende uholde honi. Egunero itsasoz Batasuneko mugetara 600 pertsona inguru heltzen dira. 2015ean milioi bat errefuxiatu heldu ziren Europara Migrazioen Naziorteko Erakundeko (OIM) datuen arabera. Aurreko urteko lehen sehilabeteko datuak kontutan hartuz gero, aurtun %46an igo da errefuxiatuen etorrera lehen lauhilekoan². Daturik aipagarriena hildakoena eta desagertutakoena da, 2016.urtea hasi denetik 1244 pertsona hil edo desagertu baitira. Horrez gain, Eurostatek jasotako datuek 2015ean 1.2 milioi asilo eskaera erregistratu dituzte Europar Batasuneko 28 estatu kideetan³.

Egoera horrela izanik, lan honetan zehar Europar Batasuneko Asilo Politika aztertuko dut, batetik egungo egoera gatazkatsua hobekiago ulertzeko, eta bestetik, aplikagarri diren politikak zertan datzaten ikusteko. Errefuxiatuen gai hau batasuneko estatu guztietan mintzagai izaten ari da eta kontutan izan behar dugu asilo sistema komun bat (SECA) martxan badela, baina aplikatzerako orduan gatazkak sortzen ari direla eta estatuen urraketak ematen ere.

Gauzak horrela, EB-eko asiloaren jatorrizko eta eratorrizko zuzenbidea aztertzea erabaki dut. Hasieran, nazioarteko zuzenbidea ere aipatuko dut errefuxiatuen kontzeptua zer den hobekiago ulertzeko. Eta bukatzeko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak asiloaren gaiaren inguruan eman dituen sententzia garrantzitsuenetako batzuk aztertuko ditut modu labur batean.

1. ASILOA NAZIOARTEKO ZUZENBIDEAN

Asiloa Europar Batasunean (EB) nola araututa dagoen aztertu baino lehenago, garrantzitsua deritzot nazioarteko ikuspegi batetik asiloaren inguruan ideia bat egitea, eta errefuxiatu izaera lortzeko zein ukanbehar bete behar diren jakitea.

Asilo eskubidea jatorrizko herrialdean jarraitua den norbanako orok beste herrialde batean babesa eskatzeko duen oinarritzko nazioarteko eskubide bat da. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (1948) hurrengo ezartzen du 14.artikulan:

“1. Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.

² Aipatutako datu guzti horiek OIM-eko web orrialdean eskuragarri daude ingelesez: <http://migration.iom.int/europe/>

³ Datu hauek ondorengo web orrialdean daude eskuragarri: <http://ec.europa.eu/eurostat/documents/2995521/7203832/3-04032016-AP-EN.pdf/>

2. Eskubide horretara ezin izango da jo delitu arruntek sortutako auzibideko egintza baten aurka, ezta Nazio Batuen helburu eta erizpideen aurkako egintzak direla-eta ere.”

1.1. Errefuxiatu kontzeptua 1951-ko Genevako Konbentzioaren arabera

Gaur egun nazioartean 1951.urtean sinatutako Nazio Batuen (NB) Genevako Errefuxiatuen Estatuaren Konbentzioak eta 1967ko New York-eko Protokoloak (Errefuxiatuen Estatutuaren Protokoloa) arautzen dute. Lehenengoari dagokionez, Konbentzioak, errefuxiatu estatutua nork lortu ahal izango duen definitzen du (zein ez den ere esaten du, adb, gerrako kriminal bat), asiloa bermatzen zaien norbanakoen inguruko araudia xedatu eta asilo hau bermatzen duten estatuen erantzukizuna ere bermatzen duelarik. Protokoloak berriz, 1951ko Konbentzioa osatzen du eta muga geografiko eta aldi baterakoak ezabatzen ditu, izan ere, Konbentzioak zioen errefuxiatu izaera 1951ko urtarrilaren 1 aurretik gertatutako gertakariengatik bakarrik eskura ziteleela⁴.

1951eko Konbentzioak errefuxiatu terminoa definitzen du eta nolabaiteko estandar batzuk ezartzen ditu izaera hori duten norbanakoak tratatzeko. Hala, 1.A.2.artikulua honako hau dio:

“A los efectos de la presente Convención , el término “refugiado” se aplicará a toda persona que debido a fundados temores de ser perseguida por motivos de raza, religión, nacionalidad, pertenencia a determinado grupo social u opiniones políticas, se encuentre fuera del país de su nacionalidad y no pueda o, a causa de dichos temores, no quiera acogerse a la protección de tal país; o que, careciendo de nacionalidad y hallándose, a consecuencia de tales acontecimientos, fuera del país donde antes tuviera su residencia habitual, no pueda o, a causa de dichos temores, no quiera regresar a él.”

Artikulu hau irakurri eta gero, garrantzitsua deritzot agertzen diren elementu ezberdinen inguruko azterketa bat egitea. Izan ere, bertan agertzen diren estandar edo

⁴ Horrela dio 1967an New York-en sinatutako Errefuxiatuen Estatutuaren Protokoloak bere hitzaurrean: “Considerando que la Convención sobre el Estatuto de los Refugiados, hecha en Geneva el 28 de julio de 1951 (denominada en lo sucesivo la Convención), sólo se aplica a los refugiados que han pasado a tener tal condición como resultado de acontecimientos ocurridos antes del 1º de enero de 1951, Considerando que han surgido nuevas situaciones de refugiados desde que la Convención fue adoptada y que hay la posibilidad, por consiguiente, de que los refugiados interesados no queden comprendidos en el ámbito de la Convención, Considerando conveniente que gocen de igual estatuto todos los refugiados comprendidos en la definición de la Convención, independientemente de la fecha límite de 1º de enero de 1951, [...]”

ukanbehar horiek betetzea beharrezkoa izango da errefuxiatu estatutuaz gozatu ahal izateko.

a. Errefuxiatu kontzeptua pertsona orori aplikatuko zaio

Honen inguruan Martín Arribas autoreak dio⁵ errefuxiatu estatutua eskatzeko eskubidea edozein pertsona fisiko eta ez juridikori dagokion ahalmena dela, erabil edo ez erabil dezakeena. Errefuxiatu izaera aplikatzea indibidualki aztertu beharko da, kasuz kasu, eta Genevako 1951ko Konbentzioari jarraiki ezingo zaie pertsona taldeei aplikatu, hau da, taldekako errefuxiatuei edota desplazatuei.

Gainera, artikuluko horretan agertzen den errefuxiatuaren definizioak dimentsio juridiko bat dauka, eta horregatik, *de facto*-zko errefuxiatu⁶ deritzenei ezingo zaie errefuxiatu estatutua aplikatu⁷.

b. Jarraitua izateko beldurra duena

Pertsona batek errefuxiatu izaera legala izan dezan, ihes egiten duen herrialdean jarraitua izateko beldurraren oinarri sendoak egon behar dira.

Doktrinak honen inguruan asko aztertu du, eta gakoa asilo eskaera aztertzerako orduan alderdi objektibo eta subjektiboa bereiztea da. Kasu batzuetan oso gauza konplexua izan daiteke azterketa hori aurrera eramatea.

Esaterako “beldur” kontzeptua subjektiboa dela argi ikusten da, pertsona batek jarraitua izateko beldurra izan dezakeelako egoera batzuetan, eta aldiz, beste batek, egoera berdinean ez du beldur hori izango. Elementu hau estuki loturik dator “oinarridun” kontzeptuarekin. Beldur horrek oinarriduna izan behar du eta hau aldiz kontzeptu objektibo bat da. Estatu hartzaieleei dagokie beldurra oinarriduna den aztertzea. Horretarako pertsona hori hipotetikoki bere estatura itzuliko balitz gertatuko litzatekena aztertzea beharrezkoa da. Azterketa hauek egitean arreta berezia jarri behar da frogak baloratzerakoan⁸. Bestalde, ez-kanporatzeko printzipioak ere garrantzia

⁵ MARTÍN ARRIBAS, J.J., *Los Estados europeos frente al desafío de los refugiados y el derecho de asilo*. Ed. Dykinson-Universidad de Burgos, Madrid, 2000. 55.or.

⁶ *De facto*-zko errefuxiatuak: Asilo eskatzaileak edota jarraituak izan direla frogatu ezin dutenak baina beren herrialdera ez kanporatzeko arrazoiak baliozkoak hartzen direnak. Nazioarteko babes subsidiarioa jaso dezakete.

⁷ PÉREZ BARAHONA, S., *El Estatuto de “Refugiados” en la convención de Geneva 1951*. Revista electrónica del Departamento de Derecho de la Universidad de La Rioja, REDUR, Logroño, Nº1, 2003. 235.or.

⁸ GOODWIN-GILL, Guy S., *The refugee in international law* (2nd edition). Clarendon Press, Oxford, 1996. 51.or.

handia dauka beldur horien oinarriak aztertzean, ezin baita errefuxiatu kanporatu bere herrialdera torturatua edo jarraitua izateko arriskua baldin badago⁹. Gortázar Rotaeche autoreak dio estatu ezberdinetako jurisprudentzia aztertzen badugu elementu objektiboak subjektiboak baino garrantzia handiagoa duela eta norbanakoei errefuxiatu estatutua ematen zaiela “jarraitua izateko beldurra” ondo frogatua baldin badago (elementu objektiboa)¹⁰.

Arazoak sortzen dituen beste elementu bat, bai doktrinan eta bai jurisprudentzian, pertsekuzioaren kontzeptua da. Pertsekuzioaren kontzeptuak ondorengo interesak barnebiltzen ditu: askatasun edo bizitza eskubideen urraketa; tortura edo tratu anker edo umiliagarriak; esklabutza edo menpekotasun (morrontza edo neskametz) egoera baterako loturak; pertsona bezala inongo aintzatespenik eza (honen ondorioak zuzenean norbanakoaren bizitza, askatasuna, segurtasuna edo osotasuna ukitzen dutenean); eta pertsona baten zapalkuntza, diskriminazioa edota bortxaketa bere bizitza indibidualaren baitan¹¹.

Aipatu behar da pertsekuzio hori banakakoa edo taldekakoa izan daitekeela¹². Eta horretaz gain, hirugarren estatu batera jo baino lehen, bere estatuaren barnean aukerak baldin badauzka, hau da, bere estatuaren zati batean bakarrik baldin badauka jarraitua izateko beldurra, lehenik estatu horretako beste leku batean saiatu beharko du babesa aurkitzen¹³. Jurisprudentziak errefuxiatu izaera ez emateko arrazoi hau eman izan du, baina doktrina honen aurka dago sortzen dituen zailtasunengatik¹⁴.

Bukatzeko, ez du zertan jatorrizko Estatuak izan behar errefuxiatua jarraitzen duena, nahikoa da Estatuak ez babestea, ez babestu nahi izatea edota ezin babestea norbanako hori Estatuko beste talde batzuegatik jarraitua izatetik.

⁹ GOODWIN-GILL, Guy S., *The refugee in international law*, *op. cit.*, 117.or.

¹⁰ GORTÁZAR ROTAECHE, C. J., *El derecho de asilo y “no rechazo” del refugiado*. Ed.Dykison-Universidad Pontificia Comillas, Madrid, 1997. 120.or.

¹¹ GOODWIN-GILL, Guy S., *The refugee in international law*, *op. cit.*, 69.or.: “Persecution within the Convention thus comprehends measures, taken on the basis of one or more of the stated grounds, which threaten deprivation of life or liberty; torture or cruel, inhuman, or degrading treatment; subjection to slavery or servitude; non-recognition as a person (particularly where the consequences of such non-recognition impinge directly on an individual’s life, liberty, livelihood, security, or integrity); and oppression, discrimination, or harassment of a person in his or her individual life”

¹² GORTÁZAR ROTAECHE, C. J., *El derecho de asilo y “no rechazo” del refugiado*. *op. cit.*, 114.or.

¹³ PÉREZ BARAHONA, S.: *El Estatuto de “Refugiados” en la convención de Geneva 1951*. *op. cit.*, 235.or.

¹⁴ GOWLLAND-DEBBAS, V., *The Problem of Refugees in the Light of Contemporary International Law*. Martinus Nijhoff, La Haya, 1996. 103.or.

c. Jarraitua izateko beldurraren oinarrizko arrazoia

Genevako Hitzarmeneko 1.A.2).artikuluak agertzen dira jarraitua izateko beldurraren arrazoiak, giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen urraketa dakartenak eta nazioarteko zuzenbidearen arabera babesten direnak¹⁵. Arrazoi hauetan oinarritu behar da asilo eskatzailea eta autoritateek honen arabera emango diote babesa. Ondorengoak dira arrazoiak:

- Arraza: Zentzu zabal batean ulertu behar da. Honen inguruan mintzatu zen Europar Batasuneko Kontseilua (EBK), talde etnikoen parte izatea ere arrazaren kontzeptuaren barnean sartu behar zela esanez¹⁶. Horretaz gain, Edozein Arraza Diskriminazio Ezabatzeko Hitzarmeneko 1.artikuluak dio arraza diskriminazioaren barnean sartzen direla: arraza, kolore, familia, eta jatorri nazional edota etnikoak.

- Erlijioa: Kontzeptu hau ere modu zabal batean ulertzen da, siniste teista, ez teista eta ateoak barne hartzen dituelarik¹⁷. Edonola ere, ez da nahikoa komunitate erlijioso baten parte izatea. Kasu honetan, norbanakoaren erlijio pentsamenduetan oinarritutako diskriminazio larria eman behar da.

- Naziokotasuna: Naziokotasuna ez da ulertu behar “hiritartasun” edo “naziokotasun juridiko” moduan bakarrik, Estatu baten barruan identitate kultural edo linguistiko ezberdin bateko kide izatea, edota beste Estatu bateko biztanleriarekin harremanak dituztenak ere barnebiltzen ditu kontzeptu honek.

- Talde sozial baten parte izatea: Jatorri berbera eta bizitzeko modu berdina edota estatus sozial berdina duen taldeetat ulertzen da. Hori bai, ez da nahikoa izango talde sozial baten parte izatearekin, autoritate gubernamentalaren ez-laguntasun zantzuak egon beharko dira talde honekiko, honen existentzia gobernuaren politikarako traba bat delako eta gainera gobernuaren portaerak oinarrizko eskubideen urraketa bat ekarri beharko du.

¹⁵ MARIÑO MENÉNDEZ, F., “El concepto de refugiado en un contexto de Derecho Internacional general”, REDI, no 2, 1983, 355.or.

¹⁶ 96/196/JAI, 1996ko martxoaren 4koa, EBI-ko K.3.artikuluaren inguruan hartutako jarrera komuna, Genevako Hitzarmeneko 1.artikuluak jasotzen den errefuxiatu kontzeptuaren aplikazioaren ingurukoa. Ez dauka inonho efektu juridiko loteslerik.

¹⁷ 96/196/JAI, 1996ko martxoaren 4koa.

- Iritzi politikoak: Zentzu zabalean ulertu beharko dira. Iritzi publikoaren askatasuna nazioarteko ordenamenduak babesten du¹⁸. Dena dela, pertsona batek autoritate gubernamentalen aurkako pentsaera politiko bat izateak ez dakar errefuxiatu izaeraren aintzatespena. EBK-ren 1996ko martxoaren 4ko 96/196/JAI-ak hainbat baldintza ezartzen ditu errefuxiatuaren eta jatorrizko gobernuaren artean dagoen gatazka frogatu ahal izateko.

d. Bere naziokotasuneko herrialdetik kanpo dago.

Genevako Hitzarmenaren arabera errefuxiatu izaera lortu nahi bada, asilo eskatzaileak bere naziokotasuneko herrialdetik kanpo egon beharko dira. Nahitaez bete beharreko baldintza da, izan ere, nazioarteko babesa ezin baita jatorrizko estatuan aplikatu. Kasu honetan, naziokotasuna zentzu hertsian ulertu beharko da eta naziokotasun juridikoa bakarrik hartuko da kontutan.

Lehen pausoa asilo eskatzailearen naziokotasuna zehaztea izango da, bere pasaporte edo nortasun agiriaren bidez, eta agiri hauek ez dauzkatenean autoritateei dagokie nongoak diren ikertzea.

Hala, naziokotasun bikoitzaren kasuetarako, 1951ko Konbentzioko 1.A.2).artikuluak esaten du, pertsona horrek bere naziokotasuneko herrialdeetan eskatu beharko duela babesa, eta ondorioz, ez daukate errefuxiatu izaeraz gozatzeko aukerarik.

Amaitzeko, “*sur place*” edo “*in situ*” deritzon kasu berezi bat dago. Horrelako kasuetan, pertsona horiek ez dute beren jatorrizko herrialdea ilegalki uzten, baizik eta, atzerriko beste herrialde batean dute egoitza eta egoera bereziak (gerra zibila, estatu golpea) direla medio ezingo dute beren jatorrizko herrialdera itzuli. Pertsona horiek ere Genevako Hitzarmenaren babesean aurkitzen dira eta errefuxiatu kontsideratuko dira¹⁹.

e. Beldurren ondorioz bere herrialdeko babespena nahi edo ezin badu jo.

Asilo eskatzailea babesgabetasun egoera batean egon behar da. Baldintza honek, ordea, bi elementu ditu: objektiboa eta subjektiboa.

Batetik, elementu objektiboa pertsona hori jatorrizko estatuaren babespena ezin jotzea da, honek, egitateekin zerikusia duelako.

¹⁸ Horrela jasotzen du 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 19.artikuluak.

¹⁹ PÉREZ BARAHONA, S., *El Estatuto de “Refugiados” en la convención de Geneva 1951 op. cit.*, 240.or.

Aldiz, pertsona horrek bere jatorrizko estatuko babespena joan nahi ez izatea norbanakoaren borondate subjektiboaren menpe dago, eta azken finean, zailagoa izaten da hori frogatzea.

f. Naziokotasun gabeko kasuetan, bere ohiko egoitzako herrialdetik kanpo aurkitzen denean, eta ezin duenean edo ez duenean nahi, jarraitua izateko beldurrarengatik, egoitzako herrialdera itzuli.

Aberrigabekoen kasuetarako aurreikusten da azken baldintza hau. Hemen garrantzitsuena eta aintzat hartu beharrekoa naziokotasunaren irizpidea ohiko egoitzarenarengatik aldatzen dela da.

1.2. Errefuxiatu kontzeptutik ezberdindu behar diren kontzeptuak

Errefuxiatu terminoaren erabilera oso ezberdina izan daiteke. Batzuentzat bere herrialdetik ihes egin duen pertsona bat errefuxiatua izango da errefuxiatu estatusa aintzatetsia izan gabe ere, termino horrek izaera deklaratioa duelako²⁰. Beste batzuek, aldiz, errefuxiatu terminoa errefuxiatu estatusa aintzatetsi zaien horiei buruz hitz egiteko erabiliko dute. Aintzat hartu behar da beraz, termino berdina egoera ezberdinei buruz hitz egiteko erabil daitekeela eta horrek zalantzak sor ditzazkeela zenbait kasutan. Lan honetan zehar, errefuxiatu terminoa errefuxiatu estatusa lortu duten horiei erreferentzia egiteko erabiliko dut gehienbat.

Asilo eskatzailea eta errefuxiatua ondo bereiztea komenigarria da. Lehenengoa, errefuxiatu izaeraren aintzatespena eskatu eta oraindik behin-betiko era batean ebaluatu ez dena da²¹. Beraz, behin asilo eskaera onartuta pertsona horrek errefuxiatu izaera izango luke.

Gainera, garrantzitsua deritzot, errefuxiatu eta babes subsidiarioa jasotzen dutenen arteko ezberdinketa bat egitea. Nazioarteko babes subsidiarioa, errefuxiatu izateko baldintza betetzen ez dituzten baina beren herrialdera itzuliz gero jarraituak izateko arrisku handia duten hirugarren estatu bateko nazionalai edo aberrigabeei aplikatzen zaie²².

²⁰ RESCIGNO, F., *Il diritto di asilo*. Carocci, Roma, 2011, 79.or.

²¹ *Asylum Trends 2014 Levels and Trends in Industrialized Countries*. UNHCR, Geneva (Suiza), 2015. Eskuragarri ondorengo web orrialdean: <http://www-unhcr.org/551128679.html>. "An asylum-seeker is an individual who has sought international protection and whose claim for refugee status has not yet been determined".

²² CEAR *Diccionario de asilo*-n eskuragarri: <http://cear-euskadi.org/derecho-de-asilo/>

1.3. Ez-kanporatzeko obligazioa: Ginebrako Hitzarmeneko 33.artikuluaren arabera.

Nazioarteko printzipio hau azaltzea interesgarria da, izan ere, asiloaren material oso kontutan hartu beharrekoa da.

Ez kanporatzeko obligazioa edo *non refoulement* (nazioartean ezagutzen den moduan) obligazioa, estatuei ezartzen zaien obligazio bat da eta honek onurak ekartzen dizkio, bai Genevako Konbentzioaren arabera errefuxiatu izaera aitortu zaionari, bai egitatezko errefuxiatuari. Genevako Konbentzioko 33.artikuluak errefuxiatuak kanporatzeko debekua ezartzen du, eta ACNUR-ek gaineratzen du, asiloa eskatu duen eta behin-betiko erantzuna jaso ez duen pertsona oro ezingo dela bere jatorrizko herrialdera kanporatu. Honez gain, aintzat hartu behar da krisi egoeren ondorioz errefuxiatu asko masiboki joaten direla babes bila beste herrialde batzuetara eta bakoitzaren eskaera banaka aztertzea ezinezkoa denez, “prima facie” errefuxiatu bihurtzen dira²³.

Beraz, bertatik ondoriozta daiteke printzipio honek errefuxiatu estatutuaz gozatzen dutenez gain asilo eskatzaile oro ere babesten duela.

Aurrez aipatu da obligazio hau Genevako Hitzarmeneko 33.artikulu²⁴ jasorik dagoela, baina denborarekin bertan ezarritako eremua zabaldu egin da²⁵. Hortaz, errefuxiatuaren bizitza edo askatasuna bere jatorrizko herrialdean arriskuan badago arraza, erlijio, naziokotasuna, talde sozial baten parte izateagatik edota iritzi politikoengatik, Estatuak errefuxiatua indarrez beste herrialde batera kanporatu edo itzultzea debekatzen du.

Eremu pertsonalari dagokionez, aurrez aipatu dugun errefuxiatu kontzeptuari aplikatuko zaio. Edonola ere, praktikan obligazio hau asilo eskatzaileei, egitatezko

²³ ESTEVE MOLTÓ, J.E., “La Unión Europea y el conflicto libio: de la intervención armada a la desprotección de los refugiados” (17-39.orr). Reig Fabado, I. (directora). *Libertad de circulación, asilo y refugio en la Unión Europea*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2014. 27.or.

²⁴ Ginebrako Hitzarmeneko 33.artikulua: “1.- Ningún Estado Contratante podrá, por expulsión o devolución, poner en modo alguno a un refugiado en las fronteras del territorio donde su vida o su libertad peligre por causa de raza, religión, nacionalidad, pertenencia a determinado grupo social o de sus opiniones políticas.

2.- Sin embargo, no podrá invocar los beneficios de la presente disposición el refugiado que sea considerado, por razones fundadas, como un peligro para la seguridad del país donde se encuentra o que, habiendo sido objeto de una condena definitiva por delito particularmente grave, constituya una amenaza para la Comunidad de tal país.”

²⁵ PÉREZ BARAHONA, S., *El Estatuto de “Refugiados” en la convención de Geneva 1951. op. cit.*, 233.or.

errefuxiatuei edota taldekako errefuxiatuei ere aplikagarri izango zaie aurrez aipatu bezala²⁶.

Eremu materialean ere obligazioaren kontzeptua hedatu egin da. López Garrido autoreak dio, egun, errefuxiatuen estradizio prozeduretara ere zabaldu dela. Hau da, estraditatu behar duten estatu horretan pertsegitua izango denaren zantzuak baldin badaude, harrerako estatuak ez-kanporatzeko obligazioa izango du²⁷.

Guzti honetatik ondoriozta daiteke, *non-refoulement* obligazioa Nazioarteko printzipio garrantzitsuenetako bat dela. Honen inguruan Gortázar Rotaechea-k dio printzipio honen barnean sartzen dela torturatua, tratu anker eta umiliagarriak edota norbanakoen eskubideak urratuko dituen estatu batera bidaltzeko debekua²⁸.

Horretaz gain, obligazio hau asilo eskatzaileen legez-kontrako sarreretara ere hedatzen da, hauek ez baitira penalki zigortuak izango, betiere, berehala aginteen aurrera jotzen badute eta kausa justifikatu bat ematen badute Genevako Hitzarmenaren 31.artikuluaren²⁹ arabera.

Bukatzeko, azpimarratu ez-kanporatzeko obligazioa ez dela izaera absolutukoa. 33.2.artikuluaren arabera baditu bere mugak, adibidez, segurtasun nazionala edota ordena publikoa.

2. ASILOA EUROPAR BATASUNEAN

2.1 ASILOAREN KONTEXTUA: ASKATASUN, SEGURTASUN ETA JUSTIZIA ESPARRUA (ASJE)

Askatasun, Segurtasun eta Justizia Esparrua (ASJE) ezartzea da Europar Batasunaren (EB) helburuetako bat, eta hori, jatorrizko zuzenbidean aurki dezakegu,

²⁶ PÉREZ BARAHONA, S., *El Estatuto de “Refugiados” en la convención de Geneva 1951. op. cit.*, 233.or.

²⁷ LÓPEZ GARRIDO, D., *El derecho de asilo*. Ed.Trotta-Ministerio de Asuntos Sociales, Madrid, 1991. 49.or.

²⁸ GORTÁZAR ROTAECHE, C. J., *El derecho de asilo y “no rechazo” del refugiado. op. cit.*, 287.or

²⁹ Genevako Hitzarmena 31.artikulua: “1. Los Estados Contratantes no impondrán sanciones penales, por causa de su entrada o presencia ilegales, a los refugiados que, llegando directamente del territorio donde su vida o su libertad estuviera amenazada en el sentido previsto por el artículo 1, hayan entrado o se encuentren en el territorio de tales Estados sin autorización, a condición de que se presenten sin demora a las autoridades y aleguen causa justificada de su entrada o presencia ilegales.

2. Los Estados Contratantes no aplicarán a tales refugiados otras restricciones de circulación que las necesarias; y tales restricciones se aplicarán únicamente hasta que se haya regularizado su situación en el país o hasta que el refugiado obtenga su admisión en otro país. Los Estados Contratantes concederán a tal refugiado un plazo razonable y todas las facilidades necesarias para obtener su admisión en otro país.”

Europar Batasuneko Ituneko (EBI) hitzaurrean³⁰ eta 3.2.artikuluaren³¹, eta Europar Batasuneko Funtzionamendu Ituneko (EBFI) 67.artikuluaren³². Esparru horrek, pertsonen zirkulazio askea, eta aldi berean, askatasuna, segurtasuna eta babes judiziala bermatu behar ditu.

EBI-ko 3.2.artikuluaren batasuneko helburuak jasotzen direnean, ASJE-ren sorkuntzaren helburuak garrantzia handia hartzen du aurrez zegoen Nizako Hitzarmenarekin alderatuz, izan ere, helburu hau barne merkatu bateratu bat egitea baino lehenago dago³³.

Egun, ASJE EBFI-ko V.Tituluko 3.zatian (67-89.artikuluetan) dago araututa, baina indarrean dagoen konfigurazioa historian zeharreko eboluzio prozesu baten parte izan da, bereziki Justizia eta Barne gaiei dagokien prozesuan.

Hasiera batean, ikusiko den bezala, intergubernamentalismoaren bidez funtzionatzen zuen, hots, estatu bakoitzak beren nortasuna galdu gabe lan egiten zuen. Baina beren artean kooperatuz eta integrazio prozesuaren ondorioz, supranazionalitatearen ereduaren alde egin dute. Iglesias Buhigues autoreak doktrina ezberdinak azertu ondoren betebeharrak komun batzuek aipatu zituen organo bat

³⁰ EBI Hitzaurrea: “ERABAKI dute pertsonen zirkulazio askea bultzatzea eta beren herrien segurtasuna eta babesa bermatzea aldi berean, askatasun, segurtasun eta justiziako eremu bat ezarrita, tratatu honetako eta Europar Batasunaren Funtziona- menduari buruzko Tratatuaren arabera”

³¹ EBI 3.2.artikuluaren: “Batasunak askatasun, segurtasun eta justiziako eremua eskainiko die bere herritarrei, barneko mugarik gabe, bertan pertsonen zirkulazio askea bermatuta egon dadin, kanpoko mugen kontrolerako, asilorako, inmigrazioarako, eta delitugintzari aurrea hartu eta bere kontra borrokatzeko gokiak diren neurriak hartzearekin batera.”

³² EBFI 67.artikuluaren: “1. Batasuna askatasun-, segurtasun- eta justizia-esparrua da, oinarritzko eskubideen errespetuaren itzalpean eta estatu kideen sistema eta tradizio juridikoen errespetuaren itzalpean.

2. Batasunak barruko mugetan pertsonen kontrolik ez dela egongo bermatuko du, eta asilo-, inmigrazio- eta kanpoko mugetarako kontrol-politika erkidea garatuko du, estatu kideen arteko elkartzunean oinarriturik, eta hirugarren herrialdeetako herritarrei dagokienez ekitatiboa izango dena. Titulu honetako ondo- rioetarako, aberrigabeak hirugarren herrialdeetako herritarren parekoak izango dira.

3. Batasuna segurtasun-maila handia lortzen saiatuko da, eta, horretarako, delinkuentzia, arrazakeria eta xenofobia saihesteko eta borrokatzeko neurriak eta polizia-agintarien, auzietarako agintarien eta beste agintari eskudunen artean koordinazioa eta lankidetzak lortzeko neurriak erabiliko ditu eta, gainera, batak bestearen zigor-arloko ebazpen judizialak onartuko ditu, eta, beharrezkoa bada, zigor-arloko legediak batak bestera hurbilduko dituzte.

4. Batasuna babes judizialaren bidea zabaltzen saiatuko da, eta, batez ere, arlo zibileko ebazpen judizialak eta estrajudizialak elkarri aitortzeko printzipioa bermatuko du.”

³³ “*Un espacio de libertad, seguridad y justicia: aspectos generales*” Ficha Técnica de la Unión Europea – 2016: “Cabe señalar que este artículo, cuyo fin es enunciar los grandes objetivos que persigue la Unión, concede ahora mayor importancia a la creación de un espacio de libertad, seguridad y justicia (ELSJ) respecto al anterior Tratado de Niza, ya que, en lo sucesivo, este objetivo se menciona incluso por delante de la realización de un mercado interior.” eta LIÑAN NOGUERAS Diego J. “El espacio de libertad, seguridad y Justicia” Mangas Martín, A (coaut). *Instituciones y derecho de la Unión Europea*. Madrid: Tecnos 2015. 94.or.

supranazionala zela esan ahal izateko³⁴: komunitateari eskuduntza eksklusiboak esleitzea; inongo estatu kideren aurrean erantzuten ez duten organo printzipal independenteen existentzia; erabakia gehiengo bidez hartzea; erabakia juridikoki lotesleak izatea hartzaileentzat, eta zuzenean eta momentuan betearazleak izatea.

2.1.1. Bilakaera historikoa

1957.urtean Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak (EET) pertsonen zirkulazio librerako eremu bat sortzea sartu zuen bere helburuen artean, hala ere, ez zen inongo neurririk hartu muga, immigrazioa edota bisatuen politikaren inguruan, aipatutako zirkulazio librea eremu ekonomiko batera mugatu zelako, eta bereziki, langileen mugimendua barne hartu zuelako³⁵.

Gai hauetan estatuen arteko kooperazio praktikoa bat 70.hamarkada inguruan eman zen lehen aldiz, eta jatorri bezala 1967an Napoleseko Itunak martxan jarri zuen Aduana Batasuna aipatu behar da. Bertan estatu kideetako aduana-agintaritzen arteko kooperazioa arautzen zen. Honen bidez, Erkidegoko estatuak beren aduana administrazioen bidez lagundu eta kooperatuko zutela adierazi zuten, arau-hauste aduanero nazional eta erkidegokoak saihestu, ikertu, jazarri eta zapaltzeko helburuarekin³⁶.

1975etik aurrera kooperazio intergubernamentalak garatzen joan zen modu gradual batean, betiere, Europar Erkidegoaren (EE) esparru juridikotik kanpo eta immigrazio, asilo eskubide eta kooperazio polizial eta judizialaren eremuan. Hala, estatu kideak beren artean partekatzen hasi ziren modu informal batean arlo horretan zuten esperientzia eta horretarako lan taldeak sortu zituzten, hala nola, “Trevi Taldea”. Beste talde batzuk ere sortu ziren hurrengo urteetan helburu berarekin aurrez aipatutako arloak jorrazteko, baina kooperazio hutsa besterik ez zenez eragozpenak sortzen zituen egitura komunitario baten falta sumatzen baitzen. Honen ondoren hartu ziren erabakiak oso garrantzitsuak izan ziren ASJE-ren garapenerako.

³⁴ IGLESIAS BUHIGUES, J.L., La noción de supranacionalidad en las Comunidades Europeas. Revista de Instituciones Europeas, 1(1), 1974, 73-120.or.

³⁵ FERNANDEZ ROZAS, J.C., “El Espacio de libertad, seguridad y justicia consolidado por la constitución Europea” *La Ley: Revista jurídica española de doctrina, jurisprudencia y bibliografía*, Ed. Wolters Kluwer, Nº 4, 2004, 1867.or.

³⁶ FERNANDEZ ROZAS, J.C., “El Espacio de libertad, seguridad y justicia consolidado por la constitución Europea” *op. cit.*, 1868.or.

Europako Akta Bakarrarekin (EAB), 1986.urtean, aldaketa esanguratsuak eman ziren. Barne merkatua barneratu zen muga fisikoak ezabatuz eta honek azaleratu zuen justizia eta barne gaietan kooperazio osagarri baten beharra zegoela, betiere, eremu komunitariotik kanpokoa eta itunak sinatzearen bidez aurrera eramane beharrekoa³⁷.

Aurrekoarekin lotuta, kooperazio intergubernalaren adibide garbiena “Schengen sistema edo eremua”-ren sorrerak da, pertsonen zirkulazio librearena. Sistema hau nazioarteko bi itunetatik eratu zen. Batetik, Schengen Akordioa (1985), mugen ezabatze gradualaren arautzen zuena, eta bestetik, akordio hori aplikatzen zuen Ituna (1990.urtean onartu eta 1995eko martxoaren 26an indarrean sartu zena). Sistema hau denborarekin garatzen joan zen eta horren ondorioz sortu zen arau multzoari “Schengengo altxor³⁸” deitu zitzaion. Egun, sistema hau EBFI-ko 19. Protokoloan³⁹ jasoa dago (1997.urtean Amsterdameko Itunean barneratu zen aurrez aipatutako protokoloan) eta estatu gehienak dira sistema honen parte, salbuespenak salbuespen.

Pauso garrantzitsu bat izan zen ASJE-rentzat 1992an Maastricht-en onartu zen Europar Batasuneko Ituna (EBI), izan ere, bertan barneratu baitzen CAJI⁴⁰ 2009arte EB-ko 3.zutabe kontsideratu zena⁴¹. Zutabe honek justizia eta barne gaiak biltzen zituen eta kooperazio intergubernalaren baten alde egiten zuen.

Beranduago, 1997.urtean Amsterdam-eko Itunak ASJE guztiz ezartzeaz edo barneratzeaz gain beste aldaketa garrantzitsu batzuk ekarri zituen. Horien artean garrantzitsuena ordu arte sistema intergubernalaren bidez kudeatu ziren arlo batzuk komunitarizatu egin zirela lehenengo zutabera pasaz. Ondorengo gaiak adibidez EET-ko IV. Tituluan jasorik daudenak:

“Visados, asilo, inmigración y otras políticas relacionadas con la libre circulación de personas”

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) gai horien gaineko jurisdikzioa eskuratu zuen. Gainera, aurretik esan bezala, itun honek barneratu zuen “Schengen sistema” ASJE-n.

³⁷ LIÑAN NOGUERAS Diego J. “El espacio de libertad, seguridad y Justicia” Mangas Martín, A., (coaut). *Instituciones y derecho de la Unión Europea*. Madrid: Tecnos 2015. 88.or.

³⁸ “Acervo de Schengen”

³⁹ *Protocolo no 19 sobre el acervo de Schengen integrado en el marco de la Unión Europea*

⁴⁰ Cooperación en Asuntos de Justicia e Interior

⁴¹ Batasuna 2009 arte zutabeen bidez antolatzen zen. 1. Elkarre komunitarioa 2. P.E.S.C.: Kanpo politika eta segurtasun komuna 3. C.A.J.I.: Justizia eta barne gaietako kooperazioa.

Bukatzeko, azken aldaketa esanguratsuena Lisboako Ituna (2007) izan zen (2009ko abenduaren 1ean indarrean sartu zena), izan ere, Amsterdameko hitzarmeneko ASJE-ren araudiaren antolakuntza bikoitza erregimen batean bateratu baitzuen tratatu honek. Horrez gain, Itun honek EBI eta EET-a erreformatu zituen, azken hau Europar Batasuneko Funtzionamendu Ituna izatera pasaz (EBFI). Itun honek ekarri zituen aldaketetan azpimarratzekoa da hirugarren zutabearen (CAJI) komunitarizazio osoa. Hala, ASJE-ren barnean zeuden gai guztiak esfera supranazional batera pasa ziren eta, ondorioz, zutabeen antolakuntza ezabatu zuen EBJA-ri jurisdikzio ia oso bat⁴² emanaz.

2.1.2. Ezaugarriak

ASJE egun EBFI-ko 3.Zatiko V.Tituluan (67-89.artikulu artean) araututa dago, eta xedapen orokorrez gain, ondorengo gai hauek arautzen ditu kapitulu ezberdinetan:

- Asilo, immigrazio eta muga kontrolen inguruko politikak
- Kooperazio judiziala materia zibilean
- Kooperazio judiziala materia penalean
- Kooperazio poliziala

Doktrinak ASJE-ren erregulazioan honako ezaugarri nagusiak ezarri ditu⁴³:

1. Eremu material oso zabala hartzen du ASJE-ak, eta hori dela eta, araudi zabal, luze eta zatikatua dauka eta hau nolabait Lisboako Itunak antolatu eta hobetzen du araudiaren edukia ordenatuz. Azken erreforma honek, hasieran azaldu bezala, garrantzia handia ematen dio EBFIko 3.artikuluko 2.paragrafoan kokatzean.

Liñan Noguerras autoreak erregulazio honen inguruan esaten du EBFI-ko 67.artikuluko 2 eta 4.paragrafo artean eremu publiko honen edukiak identifikatu daitezkeela: askatasuna, segurtasuna eta justizia. Hala ere, autore honek kritika egiten du esanez hiru elementu horiek, helburuak kontutan hartuta, oso zailak direla bateratzea eta horregatik nolabaiteko desoreka bat dagoela elementuen artean, izan ere, ezin ukatu

⁴² Hala ere, araudiak jurisdikzioaren inguruan salbuespen batzuek jasotzen ditu. EBFI-ko 276.artikuluak EBI-ko 35.5.artikuluarekin harremanetan ondorengo ezartzen du: “en el ejercicio de sus atribuciones respecto de los capítulos 4 y 5 del Título V de la tercera parte relativas al espacio de libertad, seguridad y justicia, el Tribunal de Justicia de la Unión Europea no será competente para comprobar la validez o la proporcionalidad de operaciones efectuadas por la policía u otros servicios con funciones coercitivas de un Estado miembro, ni para pronunciarse sobre el ejercicio de las responsabilidades que incumben a los Estados miembros respecto del mantenimiento del orden público y de la salvaguardia de la seguridad interior”. Beste alde batetik, EBFI-ko 72.artikuluak, Lisboako Itunaren aurreko araudiarekin jarraituz zera ezartzen du: “el presente Título [Tít. V TFUE] se entenderá sin perjuicio del ejercicio de las responsabilidades que incumben a los Estados miembros en cuanto al mantenimiento del orden público y la salvaguardia de la seguridad interior”.

⁴³ LIÑAN NOGUERAS Diego J. “El espacio de libertad, seguridad y Justicia” *op. cit.*, 93.or.

daiteke segurtasunak askatasunak baino indar gehiago duela. Hori bai, bukaeran gehitzen du Lisboako Hitzarmenarekin egoera hobetu egin dela⁴⁴.

2. ASJE-ren erregimenaren komunitarizazioak erregimen supranazional edo integrazio komunitarioaren metodoa erabiltzea dakar. Horretaz gain, Estatuak EB-ko zuzenbidea ez betetzeagatik erantzukizuna izango dute efektu zuzen, lehenetasun eta ondare erantzukizunaren printzipioetan oinarrituz.

3. ASJE-k baditu zenbait jardute muga:

(a) V.Tituluko lehenengo artikulua (67.1) hurrengo azpimarratzen du: “Batasuna askatasun, segurtasun eta justizia-esparrua da, *oinarrizko eskubideen errespetuaren itzalpean eta estatu kideen sistema eta tradizio juridikoen errespetuaren itzalpean*”.

Beraz, EB-ak esparru horretan jarduten duenean oinarrizko eskubideak eta estatu kideetako sistema eta tradizioak errespetatuz egin beharko du.

(b) EBFI-ko 72.artikuluak ezartzen duen muga ere aintzat hartzea garrantzitsua da: “Titulu hau halaxe izango da, estatu kideek ordena publikoa zaindu eta barne-segurtasuna babesteko dituzten erantzukizunak gauzatzeari kalterik egin gabe.”

(c) EBI-ko 4.2.artikuluak hainbat printzipio jasotzen ditu EB-ak jardutean errespetatu beharrekoak: “Batasunak estatu kideak tratatuen aurrean berdinak izatea errespetatuko du, eta bai estatu horien funtsezko egitura politikoari eta konstituzio-egiturari lotuta dagoen nazio-nortasuna ere, toki eta eskualde-autonomiari dagokionetan barne. Batasunak estatuaren funtsezko egitekoak errespetatuko ditu, eta, bereziki, estatuaren lurralde-osotasuna bermatzea, ordena publikoa jagotea eta estatu-segurtasuna zaintzea xede dutenak. Bereziki, estatu kide bakoitza izango da bere estatu-segurtasunaren erantzule bakarra”.

(d) Argi dago, EB-ak jarduten duenean estatuak esleitutako eskuduntzen barnean jardun beharko dutela (EBI 5.art 1 eta 2.paragrafoak) eskuduntza printzipioari eta eskuduntzak arautzen dituzten gainontzeko printzipioei jarraituz: lankidetzaren leialaren printzipioa (EBI 4.3.art), subsidiaritate eta proportzionalitate printzipioak (EBI 5.art 3 eta 4.paragrafoak) etab.

4. Ohiko prozedura legegilearen bidez (EBFI 294.art) hartzen dira gai hauen inguruko erabakiak. Hala ere, oraindik badaude ASJE-ren barnean interes eta berezitasun nazionalen defentsan kooperazio intergubernamentalaren bidez arautzen jarraitzen duten materia batzuk.

⁴⁴ LIÑAN NOGUERAS Diego J. “El espacio de libertad, seguridad y Justicia” *op. cit.*, 94.or.

5. Jardute Instituzionalari dagokionez, hainbat gauza nabarmendu behar dira:

(a) Arauketa jarduera triangelu instituzionalean oinarritzen da: Europako Batzordea, Parlamentu Europarra eta EB-ko Kontseilua.

(b) Hala ere, Kontseilu Europarrak (EBFI 68.art) eta Parlamentu nazionalek garrantzia berezia daukate (EBFI 69 eta 70.art).

(c) Eremuaren komunitarizazioaren ondorioz, EBJA-ren eskuduntza jurisdikzionalen ohiko funtzionamendua ezarri zen⁴⁵.

(d) EBFI-ko 71.artikuluari oinarrituz, Barne Segurtasuneko Kooperazio operatiboko Batzorde Iraunkorra (COSI) sortu zen.

(e) Estaturikideen administrazioen arteko kooperazioa, eta, estaturikideen eta Batzorde Europarraren arteko kooperazio bermatzeko neurriak hartzeko EB-ren eskuduntza (EBFI 74.art).

(f) Agentzia europar batzuen sorkuntza (Europol, Eurojust, Frontex...) politika komunari betearazpenerako.

ASJE-k hainbat gai ezberdin biltzen dituela ikusirik, EB-ko asilo zuzenbidean murgilduko naiz datozten lerroetan.

2.2. EB-REN KONPETENTZIA ASILOAREN GAIA: JATORRIZKO ETA ERATORRIZKO ZUZENBIDEA

Genevako Konbentzioak ez dio ezer errefuxiatu izaera lortzeko jarraitu behar diren prozedurei buruz eta estatuen esku uzten du arau hauek exekutatzeko eskuduntza⁴⁶. Kasu honetan, aurrez aipatu dut, ASJE-ren gaiak gaur egun komunitarizatuak daudela, hots, EB-ri dagokiola gai hauek arautzeko konpetentzia eta berari dagokio errefuxiatu izaera lortzeko prozedurak arautzea. EB-an asiloaren inguruko gaiak, hurrengo atalean aztertuko den bezala, jatorrizko zuzenbidean bereziki EBFI-an eta EBOEG-ean, eta eratorrizko zuzenbidean Asiloaren Europar Sistema Bateratuan (SECA) arauturik daude.

Komenigarria da jatorrizko arauak eta eratorrizko arauak bereiztea arauen azterketan sartu aurretik, izan ere, EB-ko arauen sistema bere sorkuntzatik jatorrizko eta eratorrizko arauen arteko “*summa divisio*”-an oinarritzen da⁴⁷.

⁴⁵ LIÑAN NOGUERAS Diego J. “El espacio de libertad, seguridad y Justicia” *op. cit.*, 95.or.

⁴⁶ GOODWIN-GILL, Guy S. (1996): *The refugee in international law*, *op. cit.*, 34.or.

⁴⁷ LIÑAN NOGUERAS Diego J. “El sistema de normas y actos de la Unión Europea” Mangas Martín, A (coaut). *Instituciones y derecho de la Unión Europea*. Madrid: Tecnos 2015. 355.or.

Jatorrizko zuzenbidea, Itun Eratzaileak eta horiek denboran zehar aldatu dituzten arau konbentzionalek (azken aldaketa Lisboako Hitzarmena) osatzen dute. Oinarrizko hiru ezaugarri dituzte⁴⁸:

1. Arau juridiko-internazionalak dira (materialki eta formalki) eta horregatik Nazioarteko Zuzenbidearen arabera arautzen dira.

2. Oinarrizko gaiak arautzen dituzten beren edukian antzematen da dimentsio “konstituzionala” eta gainontzeko araukiko lehentasuna.

3. Jatorrizko arauk erregulazio material espezifikoak izaten dituzte. Hau da, eratorrizko arauk arautu ditzakete baina estatuek gai hauek duten garrantziagatik jatorrizko zuzenbide bezala arautzen dituzte. Lehen mailako arauak duten gailentasunagatik babestuak daude eta horregatik estatuen adostasuna eman beharko da arauak aldatu ahal izateko.

Eratorrizko Zuzenbideari dagokionez, Marycruz Arcos Vargas autoreak horrela definitzen ditu:

“Esta instrumentación jurídica, que se confía al sistema institucional y orgánico establecido en los Tratados constitutivos, se concreta por tanto en un abanico de actos jurídicos internos y acuerdos internacionales que se adoptan por la Unión a través de los procedimientos especialmente previstos a tal fin y que forman el conjunto de lo que se denomina Derecho derivado”⁴⁹.

Eskuduntzen atribuzio sistemaren bidez sortzen dira arau hauek, azken finean, EB-ko instituzioei beharrezko botere juridikoak ematen baitzaizkie jatorrizko arauetan ezarritako helburuak bete ahal izateko.

Aurrez azaldutakoa kontutan izanda, asiloa EB-ean aztertzerako orduan bi zati bereiziko ditut. Batetik, asiloaren jatorrizko zuzenbidean eta bestetik, eratorrizko zuzenbidean.

⁴⁸ LIÑAN NOGUERAS Diego J. “El sistema de normas y actos de la Unión Europea” *op. cit.*, 356.or.

⁴⁹ ARCOS VARGAS, M., “El derecho de la Unión Europea (II): El derecho derivado”. En Alcaide Fernández, J. eta Casado Raigón, R., (coords). *Curso de Derecho de la Unión Europea*” Tecnos, Madrid, 2011. 199.or.

2.3. ASILOA JATORRIZKO ZUZENBIDEAN

2.3.1. Sarrera

Asiloa jatorrizko zuzenbidean non araututa dagoen ikusi baino lehen beharrezko da jatorrizko arau horien barnean zein arau dauden jakitea. Formalki arau hauek nazioarteko arau konbentzionalak dira, nazioarteko itunen zuzenbidera loturik daudenak eta ondorioz 1969ko Estatuaren arteko tratatuei buruzko Vienako Hitzarmena aplikatutzen zaie. Hori dela eta, kontuan hartu behar da Vienako hitzarmeneko 39.artikuluak xedatzen duena. Bertan esaten da, itunek kontrakoa ezarri ezean, itunak zuzendu edo aldatzeko beharrezko prozedura arauak jarraituz itun berri bat egin beharko dela. Horrela esan daiteke, jatorrizko zuzenbidea nagusiki itun eratzaileez eta hauek aldatu, osatu edota egokitu dituzten hitzarmenez osaturik dagoela⁵⁰.

Orain arte esandakoaren arabera jatorrizko zuzenbidearen garapena bi modutara egin da eta ondorengo arauak barnebiltzen ditu.

Batetik, Itun eratzaileak eta hauek moldatzeko eta aldatzeko egin diren itunak sartzen dira. Hauen barruan, gaur egun, garrantzitsuenak eta kontuan hartu beharrekoak EBI eta EBFI dira, izan ere, gainontzeko arauak bi arau hauekin bat etorri behar dute⁵¹.

Bigarrenik, jatorrizko zuzenbidearen aldaketan baitan estatu kide berrien atxikimendua edota tratatuaren aplikazioa bertan behera uzten duten egintzak sartzen dira. EB-ak estatu kideen atxikimenduei dagokionez, batasunak sortu zenetik gaurdaino hedapen bat jasan duela ezin da ukatu. Estatu horiek EB-ra batu baino lehen negoziazioak egoten dira, eta hauek itun eta atxikimendu egintza batekin amaitzen dira. Nazioarteko akordioak diren heinean beharrezkoa da hautagai den estatuak eta gainontzeko estatu kideek sinatu eta berrestea. Aintzat hartu behar da, gainera, atxikimendu egintza hauek nahitaez itunetan moldaketak ekartzen dituztela⁵².

Bukatzeko, EBOEG-en kasu berezia aipatu behar da ez duelako izaera konbentzionala. Edonola ere, EBI-ko 6.1.artikuluak ondorengo esaten du:

“Batasunak 2000ko abenduaren 7ko Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean ezarritako eskubideak, askatasunak eta printzipioak

⁵⁰ ARCOS VARGAS, M., “El derecho de la Unión Europea y su aplicación”, En Alcaide Fernández, J. eta Casado Raigón, R., (coords). *Curso de Derecho de la Unión Europea*” Tecnos, Madrid, 2011. 182.or.

⁵¹ LIÑAN NOGUERAS Diego J. “El sistema de normas y actos de la Unión Europea” *op. cit.*, 358.or.

⁵² ARCOS VARGAS, M., “El derecho de la Unión Europea y su aplicación”, *op. cit.*, 182.or.

aitortzen ditu, 2007ko abenduaren 12an Estrasburgon onartu zen bezala, Tratatuaren balio juridiko berbera izango duelarik.”

Ikus daitekeenez, aurreko artikulua EBOEG-i Tratatuaren balio juridiko bera ematen die, eta ondorioz, bertan jasotako printzipio, eskubide eta askatasunak, betiere EBI-ko baldintzen arabera jatorrizko zuzenbide kontsideratuko dira.

Asiloari dagokionean garrantzia duten bi artikulua, EBFI-ko 78.artikulua eta EBOEG-eko 18.artikulua dira, hurrengo orrialdeetan sakonago aztertuko ditudanak.

2.3.2. EBFI 78.artikulua

Izugarrizko garrantzia dauka, izan ere, hau da politika guztiaren abiapuntua eta hurrengo ezartzen du. Hona hemen artikulua dioena:

“1. Asilo-, ordezkoko babes- eta aldi baterako babes-kontuetan, Batasunak politika erkidea garatuko du, nazioarteko babes behar duten hirugarren herrialdeetako herritarrei estatutu egoki bat eskaintzeko eta hara itzularazi beharrik ez dagoela dioen printzipioa errespetatzeko. Politika horrek izan behar du 1951ko uztailaren 28ko Genevako Hitzarmenaren eta Iheslarien estatutuari buruzko 1967ko urtarrilaren 31ko protokoloaren arabera, baita bete beharreko gainerako tratatuaren arabera ere.

2. Lehenengo paragrafoaren ondorioetarako, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak asilorako Europako sistema erkide bati buruzko neurriak hartuko dituzte, legegintzako prozedura arruntaren arabera; honako hauek hartuko ditu barne:

- a) hirugarren herrialdeetako herritarrentzako era bereko asilo-estatutua, Batasun osorako balioko duena;
- b) asilo europarra lortu ez izanagatik nazioarteko babes behar duten hirugarren herrialdeetako herritarrei ordezkoko babes emateko era bereko asilo-estatutua;
- c) oldeka datozenerako, lekuz aldatu behar izan diren pertsonentzako aldi baterako babes- sistema erkide bat;
- d) era bereko asilo-estatutu hori edo ordezkoko babes-estatutu hori emateko edo kentzeko prozedura erkideak;
- e) asilo-eskari bat edo ordezkoko babes-eskari bat aztertzeko ardura zein estatu kidek duen zehazteko irizpideak eta tresnak;

f) asiloa edo ordezko babes eskatu dutenak hartzeko baldintzei buruzko arauak;

g) asiloa, ordezko babes edo aldi baterako babes eskatzen duen jende-etorria kudeatzeko, hirugarren herrialdeekin elkartzea eta lan- kideztan aritzea.

3. Hirugarren herrialdeetako herritarrak ustekabeen etorri direla-eta, estatu kide bat edo batzuk larritasun-egoeran badaude, Kontseiluak estatu kide horiei laguntzeko behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, Batzordeak proposaturik. Europako Parlamentuari aurretiaz kontsulta eginda erabakiko du Kontseiluak.”

EBFI-ko 78.artikulua irakurri ondoren, ondorengo funtsezko printzipioak ondorioztatu daitezke:

- a) EB-ak asilo, babes subsidiario eta aldi baterako babespeneko politika komunak garatuko ditu hirugarren estatuko nazional bati nazioarteko babes eskaini ahal izateko eta ez-kanporatzeko printzipioa bermatu ahal izateko (78.1.art).
- b) Politika horiek 1951ko Genevako Konbentzioarekin eta 1967ko New Yorkeko Protokoloarekin bat etorri behar dira, eta horiez gain, beste tratatu batzuekin bat etorri beharko dute, hala nola, GEEH-a, etab. (78.1.art)
- c) Europar parlamentuak eta Kontseiluak beharrezko neurriak hartu beharko dituzte sistemaren baitan asilo eskubide estatutu uniforme bat izateko EB-eko estatuetan eta babes subsidiarioaren estatutu uniforme bat izateko hirugarren estatuetatik datozen nazionalentzat (78.2.art).
- d) Azken paragrafoan EB-ri ematen zaio ustekabeen jende uholde bat datorrenean behin-behineko neurriak hartzeko eskuduntza.

Artikulu hau oinarritzat harturik, beranduago ikusiko dugun moduan, EB-a urteetan zehar asilo sistema komun bat ezartzen saiatu da, eta horretarako, eratorrizko zuzenbideak eskaintzen dizkion instrumentu juridikoetara jo du.

2.3.3. EBOEG 18.artikulua

Artikulu hau aztertzen hasi baino lehen garrantzitsua deritzot 1950eko Giza Eskubideen Europako Hitzarmena (GEEH) eta 2000ko EBOEG-a bereiztea. Lehenengoa, GEEH, 1950.urtean onartu zuen Europako Kontseiluak Erroman eta 1953an indarrean sartu zen. Bertan Europako ia estatu guztiak parte hartzen dute, eta

jasotzen diren eskubide eta askatasunak bermatzeko Giza Eskubideen Europako Auzitegia (Estrasburgo, Frantzia) sortu zen. Bigarrena, EBOEG, EB-ren esparruan onartu zen 2000.urtean eta esan bezala 2007ko Lisboako Hitzarmenarekin (2009an indarrean sartu zen) lotesle bihurtu zen. Horrela, gutun honetako eskubide eta askatasunak errespetatzeko edozein pertsona fisiko edota juridikok EBJA-ra jo dezake.

EBOEG-ra bueltatuz, 18.artikuluak asilo eskubidea jasotzen du, hurrengoa aldarrikatuz:

“Bermatu egiten da asilo-eskubidea, 1951ko uztailaren 28ko Genevako Hitzarmeneko arauak eta Iheslarien estatutuari buruzko 1967ko urtarrilaren 31ko protokoloa arauak errespetatuz eta Europar Batasunaren Tratatuarekin eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuarekin bat etorritik (aurrerantzean «Tratatuak» deituko zaie).”

EB-ak asiloa praktikan jartzen duenean norbanakoaren esferako eremu delikatu batean sartzen da, eta horrek, arreta berezia eskatzen du oinarritzko eskubideen urraketak eman ez daitezen. Gainera, esan beharra dago, asilo-eskubideak ez kanporatzeko, estraditatzeko edo kanporatzeko eskubidearekin (EBOEG 19) oso lotura estua duela⁵³.

Asilo eskubidea, hala ere, ez da 1950.urteko GEEH-an jasotako eskubide klasiko bat, nazioartean ezin daitekeelako asilo eskubide subjektibo bati buruz hitz egin. Dena dela, eremu komunitarioan eskubide hau EBOEG-ean barneratu zenean ez zen berrikuntza bat izan. Aurretik asilo eskubidea Amsterdameko Hitzarmenean (1997) jasota zegoen ASJE-ko eremuaren barnean, eta horrek, Erkidego Europarrari ematen zion konpetentzia beharrezko neurriak hartzeko gaiaren inguruan.

Aintzat izan, Konbentzioak gutun hau idazteko orduan egin zuen lana. Europako Konbentzioa EB-ko Itunek aurreikusitako organo ez-iraunkor bat da⁵⁴. Organo hau Itunetan berraztertze konstituzional bat eman behar denean sortu daiteke. Orain arte, bi aldiz bakarrik eratu da baina gutun honen kasuan lehenengo konbentzioa da garrantzitsuena, 1999-2000 urte bitartean egindakoa, bertan idatzi baitzen EBOEG-a.

Konbentzioan ez zen inongo dudarik egon asilo eskubidea gutunean txertatu behar zela eta erabateko adostasuna zegoen asiloa erregulatzeko orduan. Aldiz, eskubidearen izaeraren inguruan eztabaida handia egon zen. Hasiera batean, asilo eskubidea ez

⁵³ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., “Artículo 18. Derecho de Asilo”. Mangas Martín, A. (dir.) *Carta de los derechos fundamentales de la Unión Europea. Comentario artículo por artículo*. Fundación BBVA, Bilbao, 2008. 357.or.

⁵⁴ Europako konbentzioaren osaketa eta oinarritzko funtzionamendua EBI-ko 48.artikulan jasotzen dira.

estradiatzeko edo kanporatzeko eskubidearekin batera jasotzen baitzen, baina azkenean eskubide bakoitza bere aldetik jaso zuten⁵⁵.

a) Asilo eskubidearen funtsezko edukia

Asilo eskubidearen irismen juridiko zehatza zein den jakitea oso zaila da. Izan ere, ordenamendu juridikoen pluralitateak zailtasunak sortzen ditu, bakoitzak eskubideari tratamendu ezberdina ematen baitio eta hori horrela izanik, erabiltzen dituzten babes estandarrak ere oso ezberdinak izaten dira. Horren adibide garbi dira Erresuma Batua, Irlanda eta Danimarkako kasuak, EB-ko zuzenbidearen barruan deuden hiru estatu hauei ez baitzaizkie asiloaren gaian hartutako erabakiak aplikatuko.

EBOEG-eko 18.artikuluak asilo eskatzaileari eskaintzen dion babespen juridikoa 1951.urteko Genevako Hitzarmenetik eratortzen dena da. Hasteko, asilo eskubidea bermatzen du izaera orokor batean ("*Bermatu egiten da asilo-eskubidea*"), baina ondoren Genevako Hitzarmena ezartzen du bere marko interpretatzaile natural moduan ("*1951ko uztailaren 28ko Genevako Hitzarmeneko arauak eta Iheslarien estatutuari buruzko 1967ko urtarrilaren 31ko protokolo arauak errespetatuz*"). Era berean, ordenamendu komunitarioa ere jotzen du marko interpretatzaile osagarri moduan.

Berriz ere Genevako Hitzarmenera itzuliz, honek asilo eskubidearen 2 elementu adierazgarriren interpretazioa egiten du, errefuxiatu kontzeptuarena eta honen eduki juridikoarena. Hitzarmenak betebeharreko hainbat ukanbehar ezartzen ditu errefuxiatu izaeraz gozatu ahal izateko. Baldintza horiek aurrerago azaldu ditut Genevako Hitzarmena aztertu dudanean nazioarteko zuzenbidearen barnean.

Nazioarteko arauak interbentzio komunitarioaren muga

EBOEG-eko 18.artikulutik ondoriozta dezakegu, nahiz eta espresuki ez esan, asiloaren gaia arautzen duten nazioarteko oinarrizko eskubideak babesten dituzten hitzarmenak interbentzio komunitarioaren muga direla⁵⁶.

Hori bai, ez dago inongo zalantzarik, gutuneko 52.3.artikuluaren⁵⁷ arabera, 1950.urteko GEEH-a kontuan hartu beharko dela 18.artikuluko asilo eskubidea interpretatzerako orduan.

⁵⁵ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., "Artículo 18. Derecho de Asilo", *op. cit.*, 359.or.

⁵⁶ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., "Artículo 18. Derecho de Asilo" *op. cit.*, 365.or.

⁵⁷ EBOEG 52.3.artikuluak: "Gutun honek jasotako eskubideak aldi berean direnean Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak bermatutakoak, hitzarmenaren arabera

GEEH-ak ez du espresuki asilo eskubidea jasotzen, hala ere, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) torturaren eta tratu anker eta apalgarrien debekuaren inguruan egin duen interpretazioa kontutan hartzea garrantzitsua da asiloaren eskubidearekin duen loturarengatik. Horrela, guztiz debekatuta geratzen da atzerritar bat estatu batek kanporatzea, atzerritar hori bidali behar duten estatu horretan tortura eta tratu apalgarria jasango dituenaren nahiko arrazoi baldin badaude.

Printzipio hau lehen aldiz 1989.urtean *Soering* kasuan⁵⁸ agertu zen eta egun ezagunenetakoa da. Bertan, AEB-tako Virginiako estatuak Erresuma Batuan atxilotutako alemaniar baten estradizioa eskatzen zuen bere neskalagunaren gurasoen hilketa egotzita. Baina Erresuma Batuak ez zuen estraditatu nahi izan Virginiara itzuli ezker heriotza zigorra aplikatzeko arriskua baitzegoen. Ondoren, sententzia honetatik abiatuz, GEEA-k aipatutako printzipioa garatzen joan da jurisprudentziarekin egoera desberdinak barnebilduz eta babespen zabalagoa emanez.

GEEA-k garatu duen jurisprudentziak, zeharkako era batean, Genevako Hitzarmenak jasotzen duen 33.artikuluko ez-kanporatzeko printzipioa bermatzeko ere balio dezake. Baina praktikan ikus daiteke, GEEH-ko 3.artikuluak Genevako Hitzarmeneko 33.artikuluak baino babespen handiago bat ematen duela. Batetik, Estatuari egozgarri ez zaizkion pertsekuzio arriskuak ere barne hartzen dituelako, eta bestetik, kanporatze kolektiboen debekua *de facto*-ko errefuxiatuei ere aplikagarri zaielako⁵⁹.

Asilo eskubide subjektibo baten existentzia eza

EBOEG-eko asilo eskubidearen irizmen materiala zein den jakin ahal izateko beharrezkoa da jakitea ea asilo eskubide subjektibo bat existitzen den. Doktrina honen inguruan asko eztabaidatzen ari da, baina nazioarteko eta EB-ko zuzenbidea aztertuz gero atera daitekeen lehen ondorioa asilo eskubide subjektiborik existitzen ez dela da. Hori arrazoitzeko argumentu ezberdinak aurki ditzakegu⁶⁰.

izango da eskubide horien esangura eta norainokoa. Xedapen horrek ez du eragozten Europar Batasuneko zuzenbideak babes zabalagoa eskaintzea.”

⁵⁸ GEEA-ren Sententzia 14038/88 zenb, 1989ko uztailak 7. *Soering c. Erresuma Batua*

⁵⁹ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., “Artículo 18. Derecho de Asilo” *op. cit.*, 373.or.

⁶⁰ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., “Artículo 18. Derecho de Asilo” *op. cit.*, 371-373.or.

Hasteko, EBOEG-a idazteko konbentzioan eman ziren eztabaidek azkenean idazketa inbertsonal batean amaitu zuten (“*Bermatu egiten da asilo-eskubidea*”), honek aurrez esan duguna indartzen duelarik.

Bigarrenik, asilo eskubidearen irizmen materiala Genevako Hitzarmenaren baitan egin behar da, eta Hitzarmen horretatik inolaz ere ezin daiteke asilo eskubide subjektibo bat ondorioztatu. Orain arte, eskubide subjektibo hori esplizituki bermatzen zuen testu bat ateratzeko saiakera guztiak bertan behera geratu dira.

Hirugarrenik, eskubide honen irizmen materiala jatorrizko zuzenbidearen baitan ere egiten da. Izan ere, EBFI-ko 78.artikuluak partekatutako eskuduntza bat esleitzen die EB eta estatu kideei asiloaren, babespen subsidiarioaren eta aldi-baterako babespenaren politika komun bat garatzeko, betiere, hirugarren estatu bateko pertsona horiei nazioarteko babespena emateko eta ez-kanporatzeko printzipioan oinarrituz.

Eta amaitzeko, nahiz eta eskuduntza partekatua den, ez da ezer aldatzen azken erabakia estatu kideen esku dagoelako. Hots, beraiei dagokien Gutunean ematen den babespena zabaltzea edo beren barne ordenamenduan benetako asilo eskubide subjektibo bat sortzea nazioarteko eta EB-ko zuzenbidetik haratago doana. Gaur egun arte estatu kide batek ere ez du hori egin, eta are gehiago, estatuen joera aurkakoa izan da⁶¹. Besteak beste, Alemaniako ordenamendu konstituzionalean benetako eskubide subjektibotik gertu geratzen zen arau baten interpretazioa zegoen, baina arau hori erreformatu zuten aukera hori bertan behera geratuz.

Asilo eskubideak beste eskubide batzuen aintzatespena ere badakar

Orain artekoa ikusita, argi geratzen da 18.artikuluak estatuei obligazioa bat ezartzen diela, Genevako Hitzarmeneko 1.artikuluaren ezarrira dauden baldintzak betetzen dituzten norbanakoei errefuxiatu estatutua aitortu behar zaiela, eta hori azken finean, ez-kanporatzeko eskubidean oinarritzen dela. Hau da, estatuek ezin dutela inor kanporatu seguru kontsideratzen ez den estatu batera.

Horrez gainera, Hitzarmenetik beste eskubide batzuk ere eratortzen dira. Horren adibide garbi da, errefuxiatua estatu kide batean dagoen bitartean, estatuak gutxiengo eskakizun batzuk bete beharko dituela Estatuko egonaldiaren eta estatuan bertan mugitzeko duen askatasunaren kasuan. Ez hori bakarrik, norbanako horrek errefuxiatu

⁶¹ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., “Artículo 18. Derecho de Asilo” *op. cit.*, 372.or

estatutua lortzeko behar dituen baldintzak existitzen diren jakiteko barne prozedura baterako eskubidea izango du.

Bestalde, errefuxiatu estatutuaren aitortpenak Hitzarmenean jasotako beste eskubide batzuen aintzatespena ere badakar: ondasun higiezin eta higigarriak eskuratzeko eskubidea (13.art), ordaindutako enplegua izateko eskubidea (17.art), hezkuntzarako sarbiderako eskubidea (22.art) eta laguntza publikorako eskubidea (23.art).

b) EB-ko nazionalen asilo eskaerak

Denbora luzean izan da doktrinan eztabaidagai ia estatu kide bateko nazional batek beste estatu kide batean asilo eskaera egin dezakeen. Praktikan kasuak eman dira, non estatu kide batek beste estatu kide bateko pertsona baten asilo eskaera onartu duen pertsekuzio politikoagatik. Gai hau pil-pilean jarri zen *García Arranz* eta *Moreno Ramajo* etakideen kasuarekin, Belgikak ez zuelako bi hauek Espainiara estraditatzeko baimena eman⁶².

Gaur egun, aintzat hartu behar duguna da, estatu kide guztiak Genevako Hitzarmenaren baitan estatu seguru aintzatetsi direla, eta horrela, EBOEG-eko 18.artikulua generikoa denez irakurtzean sor daitezkeen dudak bertan behera geratzen dira⁶³.

Amsterdameko Itunean (1997) txertatu zen estatu kideetako nazionalen asiloaren inguruko Protokoloak⁶⁴, eta Lisboako Itunarekin (2007) ezer gutxi aldatu zenak, ondorengo arautzen du duen artikulua bakarrean: “*que los Estados miembros constituyen recíprocamente países de origen seguros a todos los efectos jurídicos y prácticos en relación con asuntos de asilo*”. Printzipio nagusi bezala ezartzen du estatu kide bateko nazional baten asilo eskaera ezin dela aztertzeke ere onartu izan⁶⁵.

Edozein modutan ere, protokolo horrek hiru salbuespen jasotzen ditu estatu kide bateko nazional baten eskaera onartzeko.

⁶² BRIBOSIA, H. “Le Protocole sur le droit d’asile pour les ressortissants des États membres de l’Union européenne”. Y. Lejeune (coord.). *Le Traité d’Amsterdam – Espoirs et déceptions*. Bruselas: Bruylant, 1998, 189-194.orr.

⁶³ BRIBOSIA, H. . “Le Protocole sur le droit d’asile...”, *op. cit.*, 190.orr.

⁶⁴ 24. Protokoloa: “Europar Batasuneko estatu kideen nazionalen asilo emateari buruzkoa”.

⁶⁵ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., “Artículo 18. Derecho de Asilo” *op. cit.*, 374.orr.

Lehenik, asiloa eskatzailearen naziokotasuneko estatu kideak GEEH-tik eratortzen diren obligazioak aplikatzeko ez-ohiko neurriak hartu baditu, hala nola, gerra edota nazioaren bizitza arriskatzen duen arrisku publiko baten kasuan.

Bigarrenik, estatu kide batek giza eskubideak larriki zauritu baditu modu iraunkor batean, estatu kide horri eskubideak eteteko prozedura hasi daiteke EBI-ko 7.artikuluari jarraiki.

Eta bukatzeko, hirugarren salbuespena da guztietan kritikatuena. Izan ere, hirugarren hau estatuek aldebakarki erabaki ezker da. Salbuespen honek protokoloan jasotako printzipioa indargabetzen du. Egia da, ahalik eta azkarren kontseiluari jakinarazi behar zaiola eta arrazoi garbiak dituenaren presuntzioa ezartzen zaiola, baina Protokoloak ez dio inongo mugarik ezartzen estatu kideei horrelako erabaki bat hartzeko. Ondorioz, ikus daiteke, hasiera batean Protokoloak aukera ixten duen arren, nolabait beste estatu kide bateko nazional baten asilo eskaera aztertzea guztiz ahalbidetzen duela.

c) EBOEG 19.artikuluko ez-kanporatzeko obligazioarekin lotura

EBOEG-eko 19.artikulu⁶⁶ oso estuki loturik dago 18.artikuluan jasotzen den asilo eskubidearekin. Izan ere, artikulua horrek itzultze, kanporatze eta estradizio kasuak babesten ditu eta kanporatze masiboak debekatu. Aurrez aipatu dugu gainera, EBOEG-a sortzeko konbentzioetako eztabaidetako bat izan zela bi artikulua hauek batera jasotzea edo bakoitza bere aldetik jasotzea.

Kanporatzeko erabakia hartu duen estatuaren aurrean juridikoki baliatu daiteke eskubide subjektibo bat jasotzen du artikulua honek. Hori bai, eskubide hau aplikatu ahal izateko beharrezkoa da kanporatzea ez burutu izana⁶⁷.

Artikulu honen funtsezko edukiari dagokionez, azpimarratuko genuke lehenengo paragrafoan jasotzen den kanporatze kolektiboaren debekua. Debeku honen helburu nagusia erabaki bakoitza azterketa konkretu baten baitan oinarritzea da eta estatu baten

⁶⁶ EBOEG 19.artikulu^a: “1. Debekatu egiten da pertsonak taldeka kanporatzea. 2. Inor ere ezin izango da beste estatu batera bihurtu, kanporatu edo estraditatu estatu horretan heriotza-zigorra, tortura nahiz zigor edo tratu anker edo laidogarriak jasateko arrisku larria badu.”

⁶⁷ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., “Artículo 19. Protección en caso de devolución, expulsión y extradición” Mangas Martín, A. (dir.) *Carta de los derechos fundamentales de la Unión Europea. Comentario artículo por artículo*. Fundación BBVA, Bilbao, 2008. 383.or.

naziokotasuna duten pertsona guztien kanporatzea erabaki bakar baten bidez egin ahal ez izatea⁶⁸.

Bestetik, bigarren paragrafoak itzultze, kanporatze eta estradizio kasuak debekatzen ditu, bidali behar den estatuan pertsona horrek heriotza zigorra, tortura edota beste tratu anker edo laidogarriak jasateko arriskua baldin badauka. Adierazgarria da, paragrafo honetan jasotzen den edukiak gutuneko 4.artikuluan jasotzen den tortura eta tratu anker eta laidogarrien debekuarekin lotura duela. Honen inguruan, Martín y Pérez de Nanclares autoreak esaten du 4.artikulua *lex generalis* dela eta, aldiz, 19.2.artikulua *lex specialis*-a⁶⁹.

Bukatzeko aipatu behar da, 19.artikulu hau GEEH-ko 15.artikuluko baldintzak eman ezkerok bakarrik mugatu daitekeela.

2.4. ASILOA ERATORRIZKO ZUZENBIDEAN

Aurrez esan bezala, Eratorrizko arauak EB-ren baitako akordioak dira prozedura baten baitan eta egintza ezberdinak barneratzen ditu. Eratorrizko Zuzenbidea 3 kategoria ezberdinetan banatu daiteke: instituzioak eginiko egintza legegilea eta ez legegilea, 3.estatuekin edota nazioarteko erakundeekin egindako nazioarteko akordioak eta PESC arautzeko egintzak (EBI-ko V.Tituluko II.kapituluan arautzen direnak)⁷⁰.

Asiloaren kasuan eratorrizko zuzenbidea aztertzeko instituzioek eginiko egintzetara joko dugu. Hauek bi taldetan banatu daitezke. Lehenengoan, egintza tipikoak daude EBFI-ko 288.artikuluan jasota daudenak, lotesleak (erregelamentuak, zuzentarauak eta erabakiak) eta ez-lotesleak (gomendio eta irizpenak). Bigarrenean, egintza atipikoak daude, EBFI-ko 288.artikuluan jasotzen ez diren instituzioek burututako egintzak dira, hauen barruan ondorengo egintzak daudelarik: programak, liburu zuria, liburu berdeak, akordio instituzionalak...⁷¹

Europar Batasuneko asilo eskubidearen tratamenduaren inguruan bi gauza zehaztea beharrezkoa da eratorrizko zuzenbidea aztertzen hasi baino lehen. Batetik, asilo

⁶⁸ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., “Artículo 19. Protección en caso de devolución, expulsión y extradición” *op. cit.*, 381.or.

⁶⁹ MARTÍN Y PÉREZ DE NANCLARES, J., “Artículo 19. Protección en caso de devolución, expulsión y extradición” *op. cit.*, 382.or.

⁷⁰ ARCOS VARGAS, M., “El derecho de la Unión Europea (II): El derecho derivado”. *op. cit.*, 201-202.or.

⁷¹ ARCOS VARGAS, M. (2011) “El derecho de la Unión Europea (II): El derecho derivado”. *op. cit.*, 205.or.

eskatzaileen babespena Asilo Sistema Europar Komunean (SECA) oinarritzen dela, eta bestetik, estatu kideen barne arauketaren harmonizazio minimo horietan oinarrituz ematen dela.

90.hamarkadatik aurrera handitzen joan zen asiloa eskatzen zuten pertsonen kopurua, eta eskaera hori ikusita, estatu kideek irtenbide komun batzuk ematea erabaki zuten. Hartu zituzten erabaki komunitario horiek balore humanitario handikoak ziren, baina neurri hauek ez zituzten esperotako emaitzak izan ez zituztelako beharrezko neurriak hartu aplikatzerako orduan. Erabaki hauekin sortutako arazo horiei aurre egiteko SECA sortzea erabaki zuten.

2.4.1. Eboluzioa

Hasieran esan dudana berriz ere gogoan hartuz, 1957.urtean sinatutako EET-ak ez zuen inongo erreferentziarik egiten asiloari buruz, tratatu horren izaera nagusia ekonomikoa zelako. Hori bai, horrek ez du esan nahi estatu kideek ez zutela inongo araukerik asiloaren inguruan. Aukerarik zegoen jakiteko, beren ordenamendu juridikoa begiratzea nahikoa zen.

Hala, 1986-ko EAB-ak EET-ari 8.A.artikulua erantsi zion, eta artikulu horrek, muga fisikoak kentzen zituen, merkantzien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio librea bermatuz.

Schengen akordioak ere aipatu behar dira asiloaren inguruan hartu ziren erabakiengatik, izan ere, 2 akordio egin ziren. Lehenengoan, 1985.urtekoan ez zitzaion inongo aipamen zehatzik egin asiloaren gaiari. Aldiz, bigarreanean, 1990.urtekoak, kapitulu oso bat eskaintzen zion asilo eskaeren azterketaren erantzukizunari⁷².

Azken akordio hau sinatu eta egun batera, 1990eko ekainaren 15ean, Dublingo Hitzarmena sinatu zen. Bertan, estatu kide guztientzat izaera uniformearen prozedura bat ezarri zuten asilo eskaera aztertzearen erantzukizuna zeini zegokion jakin ahal izateko. Bi arrazoirengatik sinatu zuten hitzarmen hau estatuek. Batetik, “orbitako errefuxiatu”-ak (“refugiados en orbita”) egotea ekiditeko, hots, asilo eskatzaileak behin eta berriz beste estatu batera bidaltzea, inork asilo eskaera aztertzeko erantzukizuna hartu gabe. Eta bestetik, prozedura administratibo komuna ezartzea estatu guztietan, errefuxiatuak estatu-kide artean mugitzea baldintza onuragarrienak aitortzen dizkion estatuaren bila joatea ekiditeko. Oso hitzarmen berezia izan zen, izan ere, bertako

⁷² BLÁZQUEZ RODRÍGUEZ, I., GUTIÉRREZ CASTILLO, V.L., *Derecho de la Unión Europea sobre inmigración y asilo*. Ed.Dykinson, Madrid, 2006. 72.or.

1.artikuluari gai honen inguruko definizio ezberdinak jasotzen zituelako atzerritar, asilo eskaera edo errefuxiatu adibidez⁷³. Hasiera batean erregelamendu honek helburu prozedimentala bazuen ere, Schengeneko Akordioaren Aplikazioaren Itunarekin batera asiloaren kontzeptu berri bat sortzen bukatu zuten Genevako Hitzarmenean jasotakoaren arabera⁷⁴.

Halere, Dublingo Hitzarmenak ez zituen esperotako emaitzak izan, asiloaren inguruko erregulazio estatu bakoitzean desberdina zelako tradizioengatik eta sistema juridikoengatik. Eta horrez gainera, prozedura administratibo nazionaletan errefuxiatu izaera nork eskuratu zezakeenaren kontsiderazio ezberdinak zeudelako.

Aurrez esan bezala, 1997.urtean Amsterdameko Itunarekin ASJE-ko arlo batzuk komunitarizatu ziren eta horien artean asiloa. Komunitarizazio hori intentsitate nibel ezberdinetan egin zen, izan ere, EB-ak ASJE-ko gai horietan izango zuen esku-hartzea ezberdina zen batzuetan eskuduntza eskusiboa izango lukeelako, eta besteetan, ordea, partekatutako eskuduntza.

Ondoren, 2001eko otsailaren 26an, Nizako Hitzarmena sinatu zen eta honek EBI-a eta EET-a aldatu zituen. Baina gai honi dagokionean erabakiak hartzeko prozedura bakarrik aldatu zuen.

Azken aldaketa esanguratsua, 2007ko Lisboako Itunarena izan zen, bertan EB-ren egitura instituzionala aldatu zelako. ASJE-ri konpetentzia berriak eman zizkion eta EBJA-k ordutik asiloari buruzko kontrol judizial handiagoa du. Asiloaren gaiko neurriak politika komun bihurtu zituen, eta helburutzat sistema komun bat sortzea ezarri zuen.

Horretaz gain, Kontseilu Europarrak urteetan zehar egin dituen programak ere garrantzitsuak izan dira gai honetan esanguratsuenak aztertuko ditugu ondoren.

1999.urtean Tampereko Programak asiloaren politika komun berriaren oinarriko printzipioak ezarri zituen: a) Ez-kanporatzeko printzipioa, hots, pertsekuzioa jasaten zuen pertsona oro beren herrialdeetara ez kanporatzeko printzipioa. b) Genevako Hitzarmenaren aplikazio osoa. c) Sistemaren garapenerako epea ezarri zuten bi fasetan egin beharrekoak. Azken finean, pauso ezberdinak xedatu zituzten estatuak gai honetan zuten autonomia etapetan mugatzen joateko, eta estatu kide batzuen eskutik murrizketak

⁷³ BLÁZQUEZ RODRÍGUEZ, I., GUTIÉRREZ CASTILLO, V.L., *Derecho de la Unión Europea sobre inmigración y asilo. op. cit.*, 372-373.orr.

⁷⁴ DIEZ VELASCO, M., *Instituciones de Derecho Internacional Público* (17.edizioa) Tecnos, Madrid, 2009. 632.or.

ekiditeko⁷⁵. d) Estatu kideen arteko solidaritatean oinarrituz, lekualdatutako pertsonen aldi baterako babespena. e) Eskaitzaileen identifikazio sistema bat erabakitzeko beharra (EURODAC).

Hagako Programak 2004-2009.urte artean⁷⁶, asiloaren inguruko hainbat gauza erabaki zituen, SECA-ren bigarren faseari ekin zioten prozedura komun baten sorkuntza eta asilo estatutu uniforme bat sortzeko helburuarekin. Hori lortu ahal izateko Genevako Hitzarmenaren aplikazio osoa beharrezkoa zen. Bestalde, lehenengo faseko erabakiak ebaluatu eta bigarrenerako neurriak hartu zituzten. Gainera, Programa honek estatuen arteko kooperazio eta kolaborazioa ahalbidetzen duten egitura egokien sorketa aurreikusi zuen, betiere, asilo eskaerak aztertzeke prozedura komun bakar baten baitan

2007ko Liburu Berdeak, SECA-ren etorkizuna zuen xede. Bere helburua nagusia, momentu horretan EB-ko marko legalaren barruan zeuden aukerak azertzea zen.

Estokolmoko Programak⁷⁷, 2010-2014.urteetarako, asilo prozedura komun batean oinarritzen den babeserako eta solidaritaterako eremu komun bat ezartzeko helburua berretsi zuen. Gainera, presio espezifikokoak jasaten dituzten estatuekiko solidaritatea sustatzeko beharrezkoa zela esan zuen.

Horrela, SECA-ren lehen pausoak 2010.urtean eman ziren Asiloa Laguntzeko Europako Bulegoa (EASO) sortzen zuen Erregelamenduarekin⁷⁸. Eta bukaera 2013.urtean izan zen Dublineko Erregelamendu⁷⁹ berriarekin eta “Eurodac”-aren sistema sortzen zuen erregelamenduekin⁸⁰. Aurrez aipatutako programek ezarritako epeak bete ziren horrela SECA sortuz.

2.4.2. SECA

Aurrez esan bezala, EBFI-ko 78.artikulua oinarri hartuz EB barnean sortzen den asilo sistema komun bat da SECA. Sistema honek pertsonen zirkulazio askea eta Askatasun, Segurtasun eta Justizia Esparruko mugimendu askatasuna bermatzen du, ez

⁷⁵ E. M. UÇARER , “Burden-Shirking, Burden-Shifting, and Burden-Sharing in the Emergent European Asylum Regime”, *International Politics*, nº 43, 2006, 227.or

⁷⁶ EBAO 2005.08.12 (2005/C 198/01)

⁷⁷ EBAO 2010.5.4 (2010/C 115/01).

⁷⁸ 439/2010 Erregelamendua maiatzaren 19koa, Asiloa Laguntzeko Europako Bulegoaren (EASO) sortzen duena

⁷⁹ 604/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 26koa, zein estatu kide izango den nazioarteko babesaren eskaera aztertzeke erantzule jakiteke mekanismo eta irizpideak ezartzen dituen

⁸⁰ 603/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 26koa, “Eurodac” sistema sortzen duena.

bakarrrik EB-eko nazionalai, baizik eta, EB-n egoitza dutenei eta baita errefuxiatu eta asilo eskatzaileei ere.

SECA martxan jarri zenean 2010.urtean, bere helburu nagusia EB mailan babes maila eta uniformitate handiagoa ezartzea eta estatu kideen arteko solidaritate maila handiagoa egotea zen⁸¹.

2013 aurretik zegoen legedia berritu zenean printzipio horiek jaso zituzten, aurrez zegoen araudia nolabait hobetuz. Beraz, esan behar da, SECA-ren baitan dagoen araudi honek estatu kideen barne arauen harmonizazioa (partziala) dakarrela materia honetan. Hurrengo arau hauek berritu ziren urte horretan, Nazioarteko babes eta asiloa emateko jarraitu beharreko prozeduren Zuzentaraua⁸², harrera Zuzentaraua⁸³, Dublineko Erregelamendua⁸⁴ eta “Eurodac”-ren Erregelamendua⁸⁵.

Hala ere, aipatu behar da SECA-ren emaitzak ez direla behar bezalakoak izaten ari, gehienbat sistemak ez dutelako behar bezala harmonizatu eta estatu kideek diskrezionalitate handia dutelako sistemaren aplikazio eta interpretazioan⁸⁶. Hori, EBJA-ko jurisprudentzia aztertuz gero baieztatua geratzen da, izan ere, sistemaren inguruan sortutako interpretazioen inguruko sententzia ezberdinak ematen ditu. Doktrina jurisprudentzial hau oso garrantzitsua da SECA-ren sistema eraikitzeko orduan, beranduago sententziak aztertzean ikusi dugun bezalaxe⁸⁷.

⁸¹ Horrela ezarri zuen LIBURU BERDEAK orduko araudia aztertu zuenean eta orduan zeuden hutsuneak ikustean estatu kideen arteko kooperazioa hobetu behar zela esan zuen. Bruselaren 2007.6.6. COM(2007) 301 final.

⁸² 2013/32/UE Zuzentaraua 2013ko ekainaren 26koa, nazioarteko babes eman edo ez emateko prozedura komunei buruzkoa (2013.6.19an indarrean sartu zena, artikulua batzuk izan ezik 2015.7.21ean sartu zirela indarrean). 2005/85/UE Zuzentaraua derogatu zuen.

⁸³ 2013/33/UE Direktika, 2013ko ekainaren 26koa, nazioarteko babes eskatzen dutenen harrera arauak onartzen direnak (2013.6.19an indarrean sartu zena, artikulua batzuk izan ezik 2015.7.21ean sartu zirela indarrean). 2003/9/CE Zuzentaraua derogatu zuen.

⁸⁴ 604/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 26koa, zein estatu kide izango den nazioarteko babesaren eskaera aztertzeko erantzule jakiteko mekanismo eta irizpideak ezartzen dituen. (2016.6.19an indarrean sartu zena). 343/2003 Erregelamendua derogatu zuen eta 1560/2003 Erregelamenduko artikulua batzuk).

⁸⁵ 603/2013 Erregelamendua, 2013ko ekainaren 26koa, “Eurodac” sistema sortzen duena eta beharrezko dena 604/2013 Erregelamenduaren aplikazio efektiborako. (2013.6.19an indarrean sartu zena eta 2015.7.20tik aplikagarri dena). 2725/2000 erregelamendua eta 407/2002 Erregelamendua derogatu zituen.

⁸⁶ LÓPEZ-ALMANSA BEAUS, E., “El sistema europeo común de asilo a examen”, en (VV.AA.) I. Reig Fabado (dir.), *Libertad de circulación, asilo y refugio en la Unión Europea*. Tirant lo Blanch, Valencia, 2014. 42–67.or.

⁸⁷ LENAERTS, K., “The contribution of the ECJ to the Area of Freedom, Security and Justice”, *International and Comparative Law Quarterly*, Vol. 59/April, 2010. 255–301.or.

2.4.2.1. 604/2013 Erregelamendua “DUBLIN III”

604/2013 Erregelamenduak, 2013ko otsailaren 26koak, asiloa aztertzeko zein estatu den erantzule erabakitzen du. Erantzukizun hori zehazteko erregelamenduak hierarkikoki antolaturik dauden irizpide batzuk ezartzen ditu. Erregelamendu honek *asylum shopping*-a eta orbitako errefuxiatuak ekidin nahi ditu⁸⁸. Izan ere, bi fenomeno hauek armonizazioa egitean sortzen diren hutsuneengatik ematen dira eta SECA errespetatzen ez dituzten prozedura nazionalen dibertsitatea dagoelako⁸⁹.

Esan bezala, erregelamendu honen baitan bertan ezarritako irizpide objektibo eta hierarkikoak aplikatuz gero, III.kapitulua xedatzen dituenak, estatu batek bere lurraldean aurkeztu den asilo eskaera aztertzeko erantzule den estatua zein den jakingo du. Erregelamenduak beste estatu kide bat dela esaten badu azterketa egiteko erantzule, azken honek aztertu beharko du asilo eskaera. Horretaz gain, irizpide horiek azterterako orduan eskaera egin den momentua hartu beharko da erreferentziatza⁹⁰.

Dublin III-k 3.1.artikuluan⁹¹ printzipio nagusi bezala ezartzen du estatu bakar bat izango dela asiloa eskaera hori aztertzeko erantzule. Nolanahi ere, estatu kide orok erabaki dezake asilo eskaera bat azterzea, nahiz eta Erregelamenduko irizpideen arabera beraiek ez izan eskaera hori aztertzeko erantzule. Honen inguruan mintzatu da EBJA-a C411/10 eta C493/10 pilatutako kasuetan non estatu seguruen kontzeptua aztertu duen azterketa egiteko erantzule den estatu kideetara bidali behar den kasuetarako. Kasu honetan, EBJA-ri galdetzen zaio ia oinarrizko eskubideak errespetuaren presuntzioa ezarrita dagoen eta erantzuna ematean *iuris tantum* printzipioaren alde egin du.

Hori horrela izanik, asilo eskaera jaso duen estatu kideak berak ustezko estatu erantzuleari eskaera bere gain hartzeko eskaera luzatu diezaioke. Guzti hau, erregelamenduko VI.Kapituluko II.sekzioan arauturik dago (21-22.art).

⁸⁸ VARGAS GOMEZ-URRUTIA, M. “Asilo, Refugio y Protección Internacional. Acerca de las deficiencias del Sistema Europeo Común de Asilo (SECA) ante la crisis de los refugiados.” Impartida en la inauguración del curso académico 2015-2016. UNED. Egea de los Caballeros (Zaragoza). 20 de Noviembre de 2015. 10.or.

⁸⁹ VARGAS GOMEZ-URRUTIA, M. “Asilo, Refugio y Protección Internacional... *op. cit.*, 10.or.

⁹⁰ VARGAS GOMEZ-URRUTIA, M. Asilo, Refugio y Protección Internacional... *op. cit.*, 12.or.

⁹¹ 604/2013 Erregelamendua 3.1.artikulua: “1. Los Estados miembros examinarán toda solicitud de protección internacional presentada por un nacional de un tercer país o un apátrida, ya sea en el territorio de cualquiera de ellos, incluida la frontera, o en las zonas de tránsito. La solicitud será examinada por un solo Estado miembro, que será aquel que los criterios mencionados en el capítulo III designen como responsable.”

Gogoan izan behar da gainera, 2013.urtean Dublin III Erregelamendu honek aurretik zegoen Dublin II Erregelamendua berritu zuela, eta ondorengo gaiak arautzen ditu esaterako: alerta goiztiarrerako mekanismo bat; eskatzaileen babeserako xedapen batzuk (derrigorrezko elkarrizketa, adingabeekoentzat bermeak eta familia babeserako neurriak); errekurtsoak betearazpena bertan behera uztea; doako laguntza juridikoa eskatzen dutenentzat; atxilotzeko kausa bakarra ihes egiteko arriskua dagoenean bakarrik; errekurtso eskubidea bermatzea; epeak zehatzagoak dira eskatzaileak babesteko eta era irregularrean sartu diren etorkinei 2008/11/CE Zuzentarauak⁹² baino babes gehiago eskaintzen dizkie.

Bukatzeko, Vargas Gómez-Urrutia autoreak erregelamendu honi kritika egiten dio barne prozedurak ez direla harmonizazio oso baten objektu esanez. Izan ere, kontzeptu batzuk modu oso zabal batean idatzi zirenez estatu batzuek ez dituzte ondo aplikatu eta ondorioz, diskrezionalitate eremu handiagoa daukate. Guzti hau, negoziazioak egin ziren momentuan egon ziren oreka politiko konplexuen ondorio izan daitekeela dio. Horretaz gain, gogoratzen du SECA-ren oinarri dela estatu kide guztietan asilo eskatzaile guztiek babes maila antzekoak izatea, baina praktikan hau oso ezberdina dela, estatu kide bakoitzak dituen prozedura eta legeek ezinezkoa egiten dutelako babes maila antzekoak izatea⁹³.

2.4.2.2. 2013/33/UE Zuzentaraua, ekainaren 26koa, Harrerako baldintzak ezartzen dituen

Zuzentarau honen objektu nagusia bere eremuaren barnean sartzen diren pertsonen bizitza maila duin bat eta estatu kide guztietan bizi baldintza antzerakoak bermatzea da. Kasu honetan, nazioarteko babesa eskatzen dutenen harrerako baldintzen harmonizazioa babes subsidiarioa eskatzen duten pertsonetara ere zabaltzen da⁹⁴. Hau horrela jasorik dago 2011/95/UE Zuzentarauko errefuxiatuen eta babes subsidiarioaren onuradunen Estatutuko eremuaren barnean sartzen diren pertsonekin tratu ezberdina ekiditeko.

⁹² 2008/115/CE Zuzentaraua egoera irregularrean dauden hirugarren estatuetak nazionalen itzulerako arau eta prozedura komunak ezartzen dituena.

⁹³ VARGAS GOMEZ-URRUTIA, M. Asilo, Refugio y Protección Internacional... *op. cit.*, 12.or.

⁹⁴ 2013/33/UE Zuzentarauko Hitzaurreko 13.puntuan dago jasorik.

Aplikazio eremu pertsonalari dagokionez, Zuzentarako 3.1.artikuluak⁹⁵ esaten du nazioarteko babesa eskatzen duten hirugarren estatuko nazional eta aberriagabe orori aplikatuko zaiola Zuzentaraua.

Hala ere, eremu pertsonalak salbuespenak dauzka, 3.artikuluko 2 eta 3.paragrafoetan⁹⁶ jasotakoak. Batetik, zuzentarau hau ez zaie aplikatiko asilo diplomatikoa edo lurraldekoa eskatzen dutenei. Bestetik, zuzentarau hau ez da aplikagarri izango pertsonak masiboki etortzean aldi baterako babesa emateko arau minimoak ezartzen dituen zuzentarauaren⁹⁷ eremua sartzen bada.

Halaber, zuzentarau honek xedatzen dituen baldintzak eskatzaileei informazioa emateko betekizuna eta eskatzaileak estatu kide horretan barna askatasunez mugitzeko duen eskubideak eskubideak dira. Edozein modutan ere, asilo eskatzailea bere identitatea egiaztatzeko bakarrik izan daiteke atxikia eta salbuespenezko arrazoiengatik bakarrik ahalko zaio lurraldearen zati batean mugitzeko askatasuna mugatu⁹⁸. Edozein kasutan, eskatzaileak murrizketa horiek errekurritzeko eskubidea izango du.

Gainera, estatu kideek hainbat baldintza material bermatu behar dituzte, esate baterako, bizitokia, elikagaiak, janztekoa eta eskatzailea txirotasun egoera batean ez egoteko esleipen ekonomikoa. Eskatzaileak familia-unitatea bermatzeko, osasun-laguntza, psikologiak eta hezkuntzarako sarbidea izateko eskubidea izango du.

⁹⁵ 2013/33/UE Zuzentarauko 3.1.artikuluak: “1. La presente Directiva se aplicará a todos los nacionales de terceros países y apátridas que presenten una solicitud de protección internacional en el territorio, incluida la frontera, en las aguas territoriales o en las zonas de tránsito de un Estado miembro, siempre y cuando se les permita permanecer en su territorio en calidad de solicitantes, así como a los miembros de su familia si quedan cubiertas por la solicitud de protección internacional de conformidad con el Derecho nacional.”

⁹⁶ 2013/33/UE Zuzentarauko 3.artikulua 2 eta 3.paragrafoak: “2. La presente Directiva no se aplicará en caso de solicitudes de asilo diplomático o territorial presentadas en las representaciones de los Estados miembros.

3. La presente Directiva no será de aplicación cuando se apliquen las disposiciones de la Directiva 2001/55/CE del Consejo, de 20 de julio de 2001, relativa a las normas mínimas para la concesión de protección temporal en caso de afluencia masiva de personas desplazadas y a medidas de fomento de un esfuerzo equitativo entre los Estados miembros para acoger a dichas personas y asumir las consecuencias de su acogida.”

⁹⁷ 2001/55/CE Zuzentaraua, pertsonak masiboki etortzean aldi baterako babesa emateko gutxiengo arauak ezartzen dituena.

⁹⁸ 2013/33/UE Zuzentarauko 8.3.artikuluak xedatzen ditu pertsona hori barneratu eta mugitzeko askatasuna mugatzeko eman behar diren supostuak.

2.4.2.3. 2013/32/UE Zuzentaraua, ekainaren 26koa, nazioarteko babesaren inguruan gutxiengo prozedura komunak ezartzen dituenak.

Zuzentarau honen helburu nagusia asiloaren prozedura komun bat ezartzeko arau berriak ezartzea da⁹⁹. Nazioarteko babesa lortzeko gakoak, modu ekitatibo eta oso batean aztertzen diren prozedura egokiak ezartzean eta estatu kideetan erabakia hartzeko orduan berme prozesalak errespetatzean datza.

Direktiba honen printzipio prozesal nagusiak hauexek dira¹⁰⁰: elkarrizketa pertsonal bat izateko eskubidea, informazioa jasotzeko eta estatu kideetan dauden erakunde espezializatuekin (ACNUR) harremanak izateko eskubidea, abokatu bat izateko eskubidea eta errekurso eskubidea.

Aplikazio eremu lurraldetarrari dagokionez, Zuzentarauko 3.artikuluak¹⁰¹ ezartzen du estatu kide horren lurraldean aurkeztutako eskaera guztiei aplikatuko zaiela, eta artikulu berean 2 eta 3.paragrafoetan ezartzen dira salbuespenak.

Modu berean, nazioarteko babesaren inguruko erabakia estandar berberen arabera har daitezten aginte erabakitzaile bat sortzea beharrezkoa da Asiloa Laguntzeko Europako Bulegoaren (EASO) osaketa kontuan hartuz¹⁰².

Asilo eskaerak, barne arauaren arabera erregistroko aginte eskunadaren aurrean egin behar dira Zuzentarauko 6.artikuluari¹⁰³ jarraiki. Gerta daiteke, eskaera eskudunak

⁹⁹ 2013/32/UE Zuzentarauko Hitzaurreko 12.puntuan jasotzen da helburu nagusia.

¹⁰⁰ 2013/32/UE Zuzentarauko 13.artikuluari jasotzen dira printzipio horietako batzuk: informatuak izateko eskubidea, erakunde espezializatuekin harremanetan jartzeko eskubidea eta abokatuak izateko eskubidea.

¹⁰¹ 2013/32/UE Zuzentarauko 3.artikuluak: “1. La presente Directiva se aplicará a todas las solicitudes de protección internacional presentadas en el territorio, con inclusión de la frontera, en las aguas territoriales o en las zonas de tránsito de los Estados miembros, y a la retirada de la protección internacional.

2. La presente Directiva no se aplicará a las solicitudes de asilo diplomático o territorial presentadas en las representaciones de los Estados miembros.

3. Los Estados miembros podrán decidir aplicar la presente Directiva en los procedimientos relativos a cualquier tipo de solicitudes de protección que caigan fuera del ámbito de aplicación de la Directiva 2011/95/UE.”

¹⁰² 2013/32/UE Zuzentarauko 4.3.artikuluari dago jasorik.

¹⁰³ 2013/32/UE Zuzentarauko 6.artikuluak: “1. Cuando una persona formule una solicitud de protección internacional a una autoridad competente para el registro de estas solicitudes con arreglo al Derecho nacional, el registro se realizará en el plazo máximo de los tres días hábiles siguientes a que se formule la solicitud.

En caso de que la solicitud de protección internacional se formule ante otras autoridades que, pese a ser probable que reciban tales solicitudes, no sean competentes para registrarlas conforme a su Derecho nacional, los Estados miembros velarán por que el registro se realice en el plazo máximo de los seis días hábiles siguientes a la formulación de la solicitud.

Los Estados miembros velarán por que estas otras autoridades que es probable que reciban solicitudes de protección internacional, tales como policía, guardias de fronteras, autoridades de inmigración y personal de los centros de internamiento, dispongan de la información pertinente y su personal reciba la formación

ez diren beste aginte batzuen aurrean egitea eta kasu horietan erregistroaren epea luzatzea. Honez gain, eskudunak ez diren aginte horiek eskatzen zaien kasuan beharrezko informazio eman beharko die eskatzaileari erregistroa non eta nola egin behar duten esanez.

Halaberrez, elkarrizketa pertsonala izateko aukera eskatzaileari ematen zaion berme prozesal bat da aginteak erabakia hartu baino lehen. Hori bai, elkarrizketa pertsonala ez egiteak ez du esan nahi aginteak ezingo duenik nazioarteko babesaren eskaeraren inguruko erabakirik hartu. Guzti hau, eskuartean daukagun Zuzentarauko 14 eta 17.artikulu artean arauturik dago eta bertan ezartzen dira elkarrizketa pertsonala egitean bete behar diren ukanbeharrak.

Bukatzeko, errekurtsio efektibo bat jartzeko eskubidea Zuzentarauko 46.artikuluan aldarrikatzen da. Artikulu horretan bertan agertzen dira errekurtsioa jartzeko eman behar diren kasuak.

2.4.2.4. 2011/95/UE Zuzentaraua abenduaren 12koa, errefuxiatuen eta babes subsidiarioaren onuradunen estatutua arautzen duena

Direktiba honen helburu nagusia nazioarteko babesa emateko eman behar diren baldintzak ezartzea da, hots, hirugarren estatuetak nazional horiek errefuxiatu izaera lortzeko edota beste babes internazional bat jasotzeko bete behar dituen ukanbeharrak ezartzea.

Horretaz gain, direktika honek eskubide batzuk ere jasotzen ditu itzultze kasuetan babesteko, bizileku baimenatarako, bidaiatarako dokumentuetarako, lanbide eta hezkuntzara sarbidea izateko, babes sozialerako, osasun laguntzarako, etxebizitza eta integrazio sarbideatarako. Gainera, adingabe eta pertsona zaugarrientzat xedapen bereziak jasotzen ditu.

Direktiba honek aurreko 2004/83/CE apirilaren 29koa berritu zuen. Izan ere, aurrekoan arautzen ziren gutxiengo arauak zehaztugabeak ziren, eta ondorioz, estatu kideen barne legediaren artean izugarritzko desberdintasunak ematen ziren asiloa ematerako orduan.

Direktiba berria aurrekoa hobetzen saiatu da erabakitze prozesuan eta gainera, gerra, tortura edo jarraituak izatetik ihes egiten ari direnak modu justu eta berdinean tratatuak izateko arauak ezarri ditu.

necesaria del nivel acorde a sus funciones y responsabilidades, así como instrucciones, para informar a los solicitantes sobre dónde y cómo pueden presentarse las solicitudes de protección internacional.”

2.4.2.5. 603/2013 Erregelamendua “EURODAC”

“Eurodac” sistemak EB-ko estatu kideetako asilo eskatzaileak eta EB-ko mugak legez kontra pasatzen dituzten immigranteak identifikatzen laguntzen du. Pertsona hauen hatz markak alderatuz estatu kideak egiaztatu dezakete asilo eskatzaile edo atzerritar horrek beste estatu batean asilo eskaera egin duen edota irregularki sartu den EB-ko lurraldean.

Europako Batzordeak kudeatzen du sistema hau hatz-markak jasotzen dituen base zentral informatizatu baten bidez eta estatu kideen arteko baliabide elektronikoen bidez.

Base horietan bildurik dauden hatz-markek ondoren aipatutako informazioa jasotzen dute (14.2.art): EB-ko jatorrizko estatua, pertsonaren sexua, non eta noiz egin den asilo eskaera edo pertsonaren intertzepzioa, erreferentzia zenbakia, noiz hartu diren hatz-markak eta noiz bidali diren datu horiek basera.

14 urtetik gorako pertsona guztien datuak jasotzen dira (9.art). Asilo eskatzaileak baldin badira, datu horiek 10 urtez gordetzen dira (salbuespena estatu kideren bateko naziokotasuna lortzea da momentuan ezabatzen direlako datu horiek). EB-ko mugetan atzemandako atzerritarren kasuan datuak 2 urtez gordetzen dira. Hala ere, erregelamenduak salbuespen batzuk jasotzen ditu.

2.4.2.6. 2001/55/CE Zuzentaraua ekainaren 20koa, aldi baterako babesaren arautzen duena

Zuzentarau honen helburu nagusia estatu kideen solidaritatea oinarri hartuz desplazatuena aldi baterako materialen araudi nazionalak harmonizatzea da.

Bertan, aldi baterako babesaren edukitzeko eman beharreko gutxiengo baldintzak ezartzen dira desplazatuena afluentsia masiboko kasuetan. Horrela, estatu kideek pertsona hauek modu ekitatibo batean hartzeko neurriak ezartzen dira eta harrera horren ondorioz dituzten erantzukizunak¹⁰⁴.

Zuzentarau honen erregimen juridikoren inguruan azpimarratu beharrekoa hurrengoa da:

- Babesaren iraupena (4.art): Zuzentaruako urte beteko babesaren bermatzen du eta kontseiluak urtez batez luzatzeko aukera du. Afluentsia masiboa dagoela kontsideratzeko, Kontseiluak horrela erabakia beharko du gehiengo kualifikatuz edo Batzordeak proposatuta.

¹⁰⁴ 2001/55/CE Zuzentaruako hitzaurreko 8.puntuan jasotzen da.

- Estatuei obligazio batzuek ezartzen zaizkie aldi baterako babes onuradunen aurrean (III. Kapituluak). Halaber, estatuak pertsona bati alde baterako babesa ematea ukatu dezakete arrazoi konkretu batzuegatik: segurtasun nazionala, gerrako krimenen batzordea, gizateriaren aurkako krimena edota Nazio Batuen helburu eta printzipioen aurka jardun dutelako.

Egun, zuzentarau aplikatzeko egoerak ematen ari direnean EB-ak ez dabil bertako araurik aplikatzen. Gainera, estatu kideek barne ordenamenduan badauzkate zuzentarau hau inplementatzen duten arauak eta indarrean daudenak baina aplikatzen ez dituztenak. Zuzentarau hau oso erabilgarri den instrumentua da egungo egoeran baina erabiltzen ez dena.

2.4.2.7. 439/2010 Erregelamendua maiatzaren 19koa, Asiloa Laguntzeko Europako Bulegoaren (EASO) sortzen duena

Erregelamendu honek EASO sortu zuen estatu kideen arteko kooperazio indartzeko asiloaren gaian eta situazio kritikoei aurre egiten laguntzeko.

EASO 2011tik jardunean dabilen Europar Batasuneko agentzia bat da eta bere funtzio nagusiak hauek dira erregelamenduko 2.artikuluaren arabera:

- Estatuen arteko kooperazio bultzatzea asilo gaietan. Honen barnean funtzio ezberdinak garatzen ditu. Esaterako, estatu kideen harremanetan jardunbide egokia bermatzea, formazio ekintzak burutzea estatu kideen administrazioak eta organo juridikzionalak parte hartu dezaketenak, beharrezko informazioa biltzea asilo eskatzaileen afluentsia masiboa ematen denerako aurretiazko alertaren sistema aktibatzekeo...
- Beren asilo sisteman eta harrera sistemetan presio espezialak jasaten dituzten estatu kideak laguntzea. Kasu hauetan, EASO-k estatu hauei premiazko laguntza emateko koordinatzen laguntzen du. Estatu kide horietan, asiloaren laguntzarako ekipoak bidaltzen dituzte interpretazio zerbitzuak egiteko, eskatzaileen jatorrizko estatuaren informazio emateko eta asilo expedienteen tramitazio edota kudeaketan ezagutza duten jendea bidaltzeko.
- SECA-ren aplikazioa hobetzea. Horretarako EASO-k SECA aplikatzen laguntzen du bai EB-barruan zein kanpoan. Barruko dimentsioari dagokionean, EASO-k orokorrean nazioarteko babesaren eskaeren trataeraren inguruko informazioa jasotzen du eta urteroko txosten bat egiten du europako asiloaren

egoeraren inguruan. Bestalde, kanpoko dimentsioari dagokionez, informazio trukea eta estatu kideek errefuxiatuak kokatzen egindako ekintzak koordinatzen laguntzen du eta hirugarren estatuekin gai honen inguruan kooperatzen baita ere.

3. EBJA-ko EPAI GARRANTZITSU BATZUK ASILOAREN GAIAN

EBJA-k emandako sententziak SECA-ren osaketarako garrantzitsuak izan dira bertako arauak osatzen eta interpretatzen laguntzen baitute. Horregatik, lan honen azkenengo zatia asiloaren inguruan azken urte hauetan eman diren sententzia garrantzitsuenetako batzuei eskainiko diet.

EBJA-ri dagokionez, azpimarratu behar da, gorputz judizial iraunkor bat dela, eta gainontzeko nazioarteko auzitegiekin alderatuz gero bere jurisdikzioa derrigorrezkoa dela bai estatu kideentzat eta bai EB-ko instituzio edota partikularrentzat¹⁰⁵. Auzitegi honen oinarritzko erregulazioa EBI-ko 19.artikuluan eta EBFI-ko 251-281.artikuluetan dago.

EBI-ko 19.3.artikuluan jasotzen dira EBJA-ak dituen zeregin nagusiak:

“3. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, Tratatuaren arabera, hauei buruz emango ditu ebazpenak: a) Estatu kideren batek, instituzioren batek edo pertsona fisiko zein juridikoren batek aurkeztutako errekurtsioei buruz;b) epaitu aurreko arazoaren kasuan, estatu kideetako jurisdikzio-organismoek halaxe eskatuta, Batasuneko Zuzenbidearen interpretazioari buruz edo instituzioek onartutako egintzen baliozkotasunari buruz; c) Tratatuaren jasotako gainerako kasuean.”

Gainera, jurisdikzio *quasi* konstituzionala duela esan daiteke kasu batzuetan EB-eko Zuzenbidearen inguruko oinarritzko aspektuen inguruan erabakia hartzen duelako¹⁰⁶.

Asiloaren arloan EBJA-k azken urteetan sententzia asko eman ditu eta oraindik ematen ari da. Ondoren azken 5 urte hauetako epai garrantzitsuenak zerrendatuko ditut:

- N.S. eta M.E, 2011ko abenduaren 21eko Sententzia (C-411/10 eta C-493/10) eta PUID, 2013ko apirilaren 18ko Sententzia (C-4/11), estatu erantzulea zehazterako orduan tratatu anker eta umiliagarriak debekatzearen ingurukoak.
- MA eta besteak, 2013ko ekainaren 6ko Sententzia (C-648/11) estatu erantzulea zehaztean umearen interesen babes gorenaren ingurukoak.

¹⁰⁵ HINOJO ROJAS, M. “Instituciones y órganos de la Unión Europea (II)”. En Alcaide Fernández, J. eta Casado Raigón, R., (coords). *Curso de Derecho de la Unión Europea*” Tecnos, Madrid, 2011. 153.or.

¹⁰⁶ HINOJO ROJAS, M., “Instituciones y órganos de la Unión Europea (II)”. *op. cit.*, 153.or.

- CIMADE eta GISTI, 2012ko irailaren 27ko Sententzia (C-179/11) eta SACIRI eta besteak 2014ko otsailaren 27koa (C-79/13) eskatzaileen harrerako baldintzetan duintasunaren bermaketa.
- H.N., 2014ko maiatzaren 8ko Sententzia (C-604/12) administrazio on bat izateko eskubidearen ingurukoa.
- BUNDESREPUBLIK DEUTSCHLAND E eta Z, 2012ko irailaren 5eko Sententzia (C-71/11 eta 99/11) eskatzaileen erlijio askatasunaren ingurukoa.
- A B C kasua 2014ko abenduaren 2koa (C-148/13tik C-150/13ra), pertsonen duintasuna eta bizitza pribatu eta familiarra izateko eskubidea errefuxiatu estatutu edo babes subsidiarioa emateko baldintzekin haremanetan.
- J.N., 2016ko otsailaren 15ekoa (C-601/15) segurtasun nazional eta ordena publikoagatik asilo eskatzailearen barneratzea eta honek duen askatasun eskubidea.
- MIRZA, 2016ko martxoaren 17ko Sententzia (C-695/15), Dublin III-rekin harremanetan eta asilo eskatzailea hirugarren estatu seguru batera bidaltzearen ingurukoa.

Ondoren, aurrez aipatutako epai batzuk azalduko ditut modu labur batean.

2011ko abenduaren 21eko N.S eta M.E. Sententzia (C-411/10 eta C-493/10) tortura eta tratu anker eta apailagarriak jasateko debekua eskaera aztertzeako orduan erantzule den estatua zehazterako orduan

Kasu honetan, EBJA-ak Dublin II erregelamenduko (343/2003 Erregelamenduko) 3.2.artikuluko¹⁰⁷ subiranotasun klausularen inguruko interpretazioa egin zuen.

2011ko abenduaren 21ean eman zen sententziak, N.S eta M.E. pilatutako gaien inguruko epai aurreko arazoei erantzun bat eman zien. EBJA-ri galdetzen zitzaiona zen ea asilo eskaera egiten zuten afganistarrak (bigarreanean iraniar eta argeliarrak ere barne hartzen ziren) Britania Handia eta Irlandatik Greziara bidali zitezkeen, azken hau

¹⁰⁷ Dublin II Erregelamenduko (343/2003 zenb.) 3.2.art: “No obstante lo dispuesto en el apartado 1, cualquier Estado miembro podrá examinar una solicitud de asilo que le sea presentada por un nacional de un tercer país, aun cuando este examen no le incumba en virtud de los criterios establecidos en el presente Reglamento. En tal caso, dicho Estado miembro se convertirá en el Estado miembro responsable en el sentido del presente Reglamento y asumirá las obligaciones vinculadas a esta responsabilidad. Informará de ello, en su caso, al Estado miembro anteriormente responsable, al que lleve a cabo un procedimiento de determinación del Estado miembro responsable o al que haya sido requerido para hacerse cargo del solicitante o readmitirlo.”

zelako asilo eskaera tramitatzeko eskuduna. Eskatzaileek esaten zutena zen, beraiek zeuden lekuko estatuak (Britania Handia eta Irlanda) Erregelamenduko 3.2.artikuluari jartzen zuenari jarraiki aztertu behar zutela beraien asilo eskaera, Greziara itzuliz gero beren oinarritzko eskubideak urratzeko edota SECA-ko gutxiengo arauak ez aplikatzeko arriskua zegoela alegatuz.

Kasu honetan bi postura kontrajarri egon ziren. Batetik, britaniako *Secretary of State*-ak esan zuen 3.2.artikuluari jasotzen zen subiranotasun klausula EB-ko zuzenbideko aplikaziotik kanpo geratzen zela eta estatuak erabil zezaketen ahalmen diskrezional bat zela. Hori horrela izanik zioten aginte eskudunek ez zutela beharrik izango oinarritzko eskubideak kontuan hartzea erabakia hartzerako orduan eta posible izango zela sistema horren barruan zeuden estatu kide guztiek EB-ko obligazioak betetzearen presuntzioan oinarritzea.

Beste aldean, Batzordea, Human Rights Commission, International Amnesty, *Aire Centre*, ACNUR, eta Frantziako, Herbeheretako, Austriako eta Finlandiako gobernuak zeuden. Hauek Dublin II erregelamenduak estatu kideei ahalmen diskrezionala ematen ziela esan zuten, baina betiere, EB-ko zuzenbidea errespetatuz¹⁰⁸.

EBJA-ak esan zuen erregelamenduko 3.2.artikuluari jasotzen zen subiranotasun klausula SECA-ren barnean sartzen zen apreziazio ahalmen bat zela, izan ere, azterketa egiteko estatu kide erantzulea erabakitzeke mekanismoetako zen. Aintzat hartu behar da, estatuak klausula hori egikaritzen bazuen azterketa burutzeko erantzule bihurtzen zela¹⁰⁹. Bukatzeko, esan zuen klausula hori egikaritzen zuen estatuak EB-ko zuzenbideko oinarritzko eskubideak kontutan hartu beharko lituzkela¹¹⁰.

Aurrekoa oinarritzat hartuz, EBJA-k begiratu zuen ia zenbateraino aztertu behar zuen estatuak eskaera transferitzen zen estatuan oinarritzko eskubideak eta SECA-ren gutxiengo arauak errespetatzen zirela. Abiapuntutzat hartu zuen SECA-ren barnean zeuden estatu kide guztiek oinarritzko eskubideak errespetatzen zituztela eta beraz, estatu kideen elkarren arteko konfiantza zegoela¹¹¹. Hala ere, presuntzio hau absolutua

¹⁰⁸ MANGAS MARTÍN, A., "Artículo 51. Ámbito de aplicación" Mangas Martín, A. (Dir.), *Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea*, Fundación BBVA, Bilbao, 2008. 217-218.or

¹⁰⁹ EBJA Sententzia 2011ko abenduaren 21ekoa, N.S. eta M.E. eta besteak, C-411/10 eta C-493/10, §64-69.

¹¹⁰ EBJA Sententzia 2011ko abenduaren 21ekoa, N.S. eta M.E. eta besteak, C-411/10 eta C-493/10, §64-69.

¹¹¹ EBJA Sententzia 2011ko abenduaren 21ekoa, N.S. eta M.E. eta besteak, C-411/10 eta C-493/10, §78-79.

ez zela esan zuen auzitegiak, eta zalantzan jarri behar zela asilo prozeduran eta asilo eskatzaileak harrera baldintzetan (tratu anker eta umiliagarrien kasuan) hutsune sistematikoak egotearen frogak zeudenean¹¹². Kasu horietan, transferentzia hori ezinezko izango litzateke.

Ondorioz, eskatzailea zegoen lekuko estatuak jarraitu beharko zuen azterketarekin Dublin II Erregelamenduko III.kapituluan xedatzen ziren irizpideak aintzat hartuz beste estatu bat erantzule zen jakiteko helburuarekin¹¹³. EBJA-k sententzia honetan azpimarratzen du erregelamendu horretako 13.artikulua ixte-artikulu bat bezala funtzionatzen duela eta ezin baldin bada estatu erantzulea zehaztu asilo eskaera jaso duen lehen estatua izango dela erantzulea¹¹⁴.

2012ko irailaren 27ko CIMADE eta GISTI Sententziak (C-179/11) eskatzaileen duintasunaren inguruan harrerako baldintzen dagokienean.

Kasu honetan, bi erakundek, CIMADE eta GISTI-k, Frantziako *Conseil d'État*-aren aurrean errekurtsioa bat jarri zuten, 2009ko azaroaren 3ko Zirkular interministeriala, itxaronaldiko behin-behineko laguntza arautzen zuenaren aurka. Erakunde hauek kontsideratu zuten zirkular hori 2003/9/CE Zuzentarauaren (nazioarteko babesa eskatzen dutenen harrera arauak onartzen dituen) helburuen aurka zioala. Horrela, *Conseil d'État*-ak EBJA-ren epai aurreko arazoa batzuk planteatu zituen. Zehazki, ea Dublin II Erregelamenduaren arabera beste estatu batzuek erantzule ziren asilo eskatzaileen harrera baldintza minimoak eskaintzea beharrezkoa zen. Erantzuna baiezkoa izanez gero, ea obligazio hori noiz bukatzen zen eta zein estatu kidek (eskaera jaso zuenak edo erantzule zenak) egin behar zion aurre suposatzen duen karga ekonomikoari.

Justizia auzitegia, lehenengo kuestioari erantzuna eman ahal izateko 2003/9/CE Zuzentarako 3.artikuluaren oinarritu zen. Bertan zuzentarauaren aplikazioa eremuan sartu ahal izateko 2 baldintza ezartzen ziren: batetik hirugarren estatuko nazional edo aberri-gabe batek asilo eskaera egitea estatuaren mugan edota estatuko lurraldean, eta bestetik, beren estatuan geratzen uztea asilo eskatzaile moduan. Auzitegiak lehenengo baldintza aztertu ondoren esan zuen artikulua horretatik ez zela ondorioztatzen asilo

¹¹² EBJA Sententzia 2011ko abenduaren 21ekoa, N.S. eta M.E. eta besteak, C-411/10 eta C-493/10, §86.

¹¹³ EBJA Sententzia 2011ko abenduaren 21ekoa, N.S. eta M.E. eta besteak, C-411/10 eta C-493/10, §96

¹¹⁴ EBJA Sententzia 2011ko abenduaren 21ekoa, N.S. eta M.E. eta besteak, C-411/10 eta C-493/10, §97

eskaera bat burutuztat jotzeko estatu kide erantzuleko agintearen aurrean egin behar zenik¹¹⁵. Are gehiago, erantzule den estatua zein den jakin ahal izateko beharrezkoa zen aurrez asilo eskaera bat eginda edukitzea (343/2003 Erregelamenduko 4.1.art). Bigarren baldintzari zegokionez, beren estatuan geratzen uztearena alegia, aztertzen ari ziren zuzentarauko 3.1.artikuluan eta 2005/85/CE Zuzentarauko 2.k).artikuluan oinarrituz estatuan geratzeko baimena bai eskaera aztertzen zuen estatuari eta bai eskaera aurkezten zuen estatuari aplikatuko zitzaiola esan zuen¹¹⁶.

Planteatuko bigarren judizio aurreko kuestioari erantzuna emateko aztertzen ari ziren Zuzentarauko 2.c.artikuluan eta 343/2003 Dublin II Erregelamenduko 2.d.artikuluan oinarrituz asilo eskatzaile izaera behin-betiko ebazpen bat eman arte mantentzen zela esan zuen¹¹⁷. Eskuarlean zuten kasuari hau aplikatuz gero, harrerako gutxieneko baldintzak betetzeko obligazioa estatuak asilo eskaera azterketa egiteko erantzule den estatuari transferitzean bukatzen zaie¹¹⁸. Mantentze horrek suposatzen zuen karga ekonomikoaren inguruan arauak espresuki ezer ez ezartzean, obligazio horiek bete behar dituen estatuaren gain egongo zela ondorioztatu zuen auzitegiak¹¹⁹.

2014ko abenduaren 2ko A B C Sententzia (C-148/13tik C-150/13ra) pertsonen duintasuna eta bizitza pribatu eta familiarra izateko eskubidea errefuxiatu estatutu edo babes subsidiarioa emateko baldintzekin harremanetan.

Kasu honetan auzitegiak orientazio sexuala asiloa eskatzeko kausa zenean estatu kideetako aginteek asilo eskatzaileen orientazio sexualaren egiazkotasuna aztertzerako orduan errespetatu beharreko mugak aztertu zituzten.

Aintzat hartu behar da sententzia honeta esferan intimo batean sartzen garela eta horregatik duintasun, bizitza pribatu edota osotasunaren... eskubideak urratzeko arriskua dagoela. Bestalde, beharrezkoa da deklarazio horien egiazkotasuna aztertzea, izan ere, horrela izango ez balitz nazioarteko babesa eskatzen duen orok kausa bezala erabiliko lukeelako.

Egitateei dagokienez, A, B eta C-k behin-behineko egoitza izateko eskaera egin zuten Holandan beren herrialdean homosexualak izateagatik jarraituak izateko

¹¹⁵ EBJA Sententzia 2012ko irailaren 27koa, CIMADE eta GISTI, C-179/11, §40

¹¹⁶ EBJA Sententzia 2012ko irailaren 27koa, CIMADE eta GISTI, C-179/11, §47-48

¹¹⁷ EBJA Sententzia 2012ko irailaren 27koa, CIMADE eta GISTI, C-179/11, §53

¹¹⁸ EBJA Sententzia 2012ko irailaren 27koa, CIMADE eta GISTI, C-179/11, §55

¹¹⁹ EBJA Sententzia 2012ko irailaren 27koa, CIMADE eta GISTI, C-179/11, §59

beldurrarengatik. Bai Estatuko Idazkariak (Staatssecretaris) eta bai Rechtbank's Gravenhage-an aurrean jarritako errekurtsioek beren eskaerak desestimatu zituzten orientazio sexualak ez zirelako ondo demostraturik geratu eta egindako deklarazioak azalekoak eta egiazkotasunik gabekoak zirelako.

Kasu hau Estatuko Kontseilura (Raas van State) iritsi zenean EBJA-ren aurrean epai aurreko arazo bat planteatzea erabaki zuen orientazio sexuala egiaztatzeke orduan mugak zeintzuk ziren jakiteko.

Horrela, auzitegiak egitateen eta zirkunstantziak aztertzeke abiapuntu bezala ezarri zuen orientazio sexualaren deklarazioa¹²⁰, izan ere, jarraitua izateke kausa edozein zela ere nazioarteko babesa eskaera ebaluazio prozesu bat objektu izan behar zela azpimarratuz. Hori bai, aginte nazionalen esku utzi zuen aurkeztutako frogan ezaugarrien araberrako apreziazio metodoak erabiltzea norbanakoen eskubideak ez urratzeke helburuarekin¹²¹.

Sententzia honetan auzitegiak orientazio sexualagatik jarraituak direla arguaditzen duten asilo eskatzaileei egiten zaizkien frogak aztertu zituen. Hasteko, galdeketa egitean errespetatu beharreke mugak aztertu zituen. Auzitegiak esan zuen posible zela orientazio sexualarengatik jarraitua izateke beldurra zuen asilo eskatzaile bati galdeketa bat egitea, betiere, galdeketa eta azken erabakia homosexualitatearen inguruan aurrez eraikiak dauden ideien ingurukoa ez bazen. Orientazio sexualarengatik praktika sexualen inguruko galdeketa zehatz bat egitea EBOEG-en aurkakoa izango zela gaineratu zuen¹²².

Ondoren, onartezinak ziren frogak aztertu zituen, hala nola, bideo edota azterketa pseudomedikuak egitea. Auzitegiak honen inguruan izaera orokor batean ez luketela froga balorerik izango eta EBOEG-eko 1.artikuluaren aurkako izango litzatekeela argitu zuen. Honetaz gain azpimarratu zuen horrelako frogak onartzea froga horiek sustatzea zekarrela eta *de facto* egoera berean zeuden beste pertsona batzuek hori egitera behartzea¹²³.

Amaitzeke jarraitua izateke kausa orientazio sexuala izanik berandu esateak ez zekarrela egiazkotasuna ezeztatzeke arrazoia esan zuen. 2004/83 Zuzentarauak ezartzen

¹²⁰ EBJA Sententzia 2014ko abenduaren 2koa (C-148/13tik C-150/13ra) §49.

¹²¹ EBJA Sententzia 2014ko abenduaren 2koa (C-148/13tik C-150/13ra) §53.

¹²² EBJA Sententzia 2014ko abenduaren 2koa (C-148/13tik C-150/13ra) §64.

¹²³ EBJA Sententzia 2014ko abenduaren 2koa (C-148/13tik C-150/13ra) §64-66.

zuen ahalik eta azkarren aurkeztu behar zirela jarraitua izateko kausaren elementuak, baina kasu honetan, sexualitatearen eremua oso pertsonala denez auzitegiak ezarri zuen kausa beranduago emateak ez ziola egiazkotasunik kentzen¹²⁴.

ONDORIOAK

Lan honek egungo egoera hobekiago ulertzen lagundu dit, izan ere, asiloaren marko juridikoak aztertzeak egoerari buruzko ikuspegi zabalago eta argiago bat edukitzea ahalbidetu dit. Hona hemen ateratako ondorioak:

- Logikoa da EB bezalako instituzio batean, azken urteetan eredu supranazionalaren alde egiten ari dena, asilo sistema komun bat ezartzea. Asiloa, lanean aztertu dudan bezalaxe, norbanako orok dugun oinarrizko eskubide garrantzitsu bat da, bermatu beharrekoa. 1986an EAB-rekin estatuen arteko mugak ezabatu zirenetik guztiz arrazionala deritzot batasunak asilo sistema komun baten alde egitea. Nolabait, estatuen artean zeuden ezberdintasun horiek araudi batean armonizatzea eta eskubidea estatu guztietan maila berean bermaturik egotea derrigorrezkoa zen. Gaur egun, eboluzio prozesu baten ondoren, SECA-k lagundu du asiloaren gaia “armonizatzen”. Baina gaur eguneko aztertuz gero ezin da ukatu estatu guztietan ez dela modu berean bermatzen eskubide hau. Estatu guztietan aplikatzen al dira estandar berberak? SECA indarrean dago baina estatu guztiek aplikatzen al dituzte bertako arauak?
- SECA-rekin egun gertatzen den arazoa, EB-eko zuzenbidearekin gertatzen dena da. Azken finean, dakigun moduan, estatuak EB-ri eskuduntza batzuek eman dizkiete gai batzuetan beren orde zuzenbidea egiteko eta horretarako subiranotasunaren zatitxo bat eman diote EB-ri. Hala ere, arazoak sortzen direnean edota gogoko ez duten erabaki bat hartzen denean bere boterea eta subiranotasuna aldarrikatu nahian ez dute batasuneko zuzenbidea aplikatzen. Eta horixe gertatu da asiloaren gaiarekin. Estatu kideak ez dituzte beren gain hartu SECA-k ezarritako betebeharrak, eta estatu batzuek, beren mugak istera ere heldu dira errefuxiatuak beren lurraldeetan ez sartzeko. Gaur egun, batasuneko kide gehienetan asiloaren urraketa sistematikoak ematen ari dira. Are larriago da, 28 estatu kideetako agintariek Turkiarekin sinatu duten akordioa, asiloaren nazioarteko printzipio nagusienak urratzen ari baitira eta SECA-k berak

¹²⁴ EBJA Sententzia 2014ko abenduaren 2koa (C-148/13tik C-150/13ra) §66-72.

bermatzen dituenak ere, ez-kanporatzeko obligazioa, asilo eskubidea... Urraketa guzti hauen aurrean non daude errefuxiatu guzti hauen eskubideak? Estatuetakoa agintek bermatzen ez badizkiete nork bermatuko dizkie? Oinarrizko eskubideen urraketa hauen aurrean zer egin dezakete pertsona hauek? Eta behin Turkiara botatzen dituztenean zer egiteko asmoa dago errefuxiatu guzti hauekin?

- EBI-ko 2.artikulua aipatzea garrantzitsua deritzot, izan ere, duintasuna, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, Zuzenbidezko Estatuak eta giza eskubideak babesten ditu. Horrez gain, EBFI-ko 49.artikuluak esaten du printzipio horiek errespetatu eta babesten dituzten estatuak bakarrik izan daitezkeela EB-ren parte. Non daude printzipio guzti hauek errefuxiatu guzti horiei atek ixten zaizkienean? Eta zenbat estatu kidek errespetatzen dituzte printzipio horiek?
- 2014ko martxoan Europako Batzordeak Zuzenbidezko Estatuaren marko berria xedatu zuen urraketa sistematikoak ematen ziren kasuetarako, eta azken aukera bezala utzi zuen EBI-ko 7.artikulua. Artikulu honen helburu nagusia EB-aren balore nagusiak errespetatzea datza. Hala ere, orain arte EB-ak ez du inoiz martxan jarri mekanismo hau, nahiago izan baitu presio politikoa edo infrakzio mekanismoak erabili. Kasu honetan, bai estatuak eta bai EB-ak larriki urratu dute batasuneko zuzenbidea baina ez dute inongo ondoriorik jasan. Asiloaren zuzenbidean eman diren urraketak presio politikoa edo infrakzioekin konponduko dira?
- Orain gutxi EB-eko komisarioen elkargoak SECA-ren aldaketa bat proposatu du Dublin III erregelamenduan. Asilo eskaera desproporzionatuak dauden larrialdi egoerarako mekanismo bat sortu dute, eta horrela, estatuak sistema alde baterako utzi dezakete 12 hilabetez baina 250.000€ ordaindu beharko dituzte aztertzeko eskudunak diren eta beste estatu batek onartzen duen asilo eskaera bakoitzeko. Harrigarria da EB-ak horrelako aldaketa bat onartzea, azken finean, estatuak legitimazioa ematen zaielako norbanakoen eskubideak urratzera modu legal batean. XXI.mendean, estatu kide guztiak zuzenbidezko estatuak diren batean, lotsagarria da norbanakoen eskubideak horren larriki urratzen dituen aldaketa batean aurrean estatuak horren pasiboki erreakzionatzea. Aldaketa hau egiteko arrazoia, nire ustetan ez da arazo ekonomiko bat, ezta baliabide pertsonalen urritasuna dagoela, interes gatazka bat dagoela uste dut batasunean

eta beti gailentzen dira agintari eta lobby-en interesak norbanakoen interesen aurrean.

- Duela 15 urte, 2001ean onartu zen zuzentarau bat badago aldi baterako babesa arautzen duena, masiboki jendea etortzen den kasuetarako, baina egun 2016an jendea europara masiboki sartzen ari denean aplikatzen ari ez direna. Zertarako onartu 15 urte geroago aplikatuko ez den zuzentarau bat? Gainera barne ordenamenduan estatuek badauzkate arauak horixe bera arautzen dutenak, zergatik ez dute modu subsidiario batean arau hauetara jotzen? Esku-eskura dituzte aplikagarriak eta erabilgarriak diren arauak baina agintariek ez dituzte nahi aplikatu, zergatik?
- Norbanakoen eskubideekin jolasten ari dira eta honek etorkizun batean izan dezakeen ondorioa oso larria izan daiteke. Izan ere, ematen ari diren urraketak sistematikoak dira eta ez daude inondik inora SECA aplikatzen. Zein egiazkotasun izango du etorkizun batean asilo sistema honek? Zertarako egiten dira arauak ondoren estatuek betetzen ez badituzte?
- Egoera larri honen aurrean, garaia da agintariek erantzukizun politikoa asumitzea eta errefuxiatu guzti hauen oinarrizko eskubideak bermatuko dituen erabaki bat hartzea. Argi ikusi baita orain arteko sistema ez dela errealitatera egokitzen, azken finean, estatuen esku geratzen delako sistema aplikatzeko erabakia. Sistemak aldarrikatzen duen solidaritatea estatu kideen egoismoak zapaltzen du bere interes propioen alde.

BIBLIOGRAFIA

ALCAIDE FERNANDEZ, J. eta CASADO RAIGÓN, R. (coords). *Curso de Derecho de la Unión Europea*. Tecnos, Madrid, 2011.

ALONSO MOREDA, N., “Concesión de las condiciones mínimas de acogida y asistencia sanitaria a los solicitantes de asilo como garantía del pleno respeto de la dignidad humana”. En *Revista Aranzadi Unión Europea num.1/2013 parte Jurisprudencia*. Ed. Aranzadi, SA, Cizur Menor. 2015.

BLÁZQUEZ RODRÍGUEZ, I., GUTIÉRREZ CASTILLO, V.L., *Derecho de la Unión Europea sobre inmigración y asilo*. Ed.Dykinson, Madrid, 2006.

BOLLO AROCENA, M.D. “Límites a los que quedan sometidas las autoridades nacionales a la hora de evaluar las solicitudes de asilo basadas en el temor a la persecución por la orientación sexual Sentencia del TJUE (Gran Sala), de 2 de

- diciembre de 2014 (asuntos acumulados C-148/13 a C-150/13)” En *Revista Aranzadi Unión Europea num.1/2015 parte Jurisprudencia*. Ed. Aranzadi, SA, Cizur Menor. 2015.
- BRIBOSIA, H. “Le Protocole sur le droit d’asile pour les ressortissants des États membres de l’Union européenne.” En Y. Lejeune (coord.). *Le Traité d’Amsterdam – Espoirs et déceptions*. Bruselas: Bruylant, 1998, 189-194.or.
- DIEZ VELASCO, M., *Instituciones de Derecho Internacional Público* (17.edizioa) Tecnos, Madrid, 2009.
- ESTEVE MOLTÓ, J.E., “La Unión Europea y el conflicto libio: de la intervención armada a la desprotección de los refugiados” Reig Fabado, I. (dir.). *Libertad de circulación, asilo y refugio en la Unión Europea*. Tirant lo Blanch., Valencia, 2014. 17-39.or.
- FERNANDEZ ROZAS, J.C.: “El Espacio de libertad, seguridad y justicia consolidado por la constitución Europea” *La Ley: Revista jurídica española de doctrina, jurisprudencia y bibliografía*, Ed. Wolters Kluwer, Nº 4, 2004, 1867-1881.orrialdeak.
- GOODWIN-GILL, Guy S., *The refugee in international law* (2nd edition). Clarendon Press, Oxford, 1996.
- GORTÁZAR ROTAECHE, C. J., *El derecho de asilo y “no rechazo” del refugiado*. Ed.Dykison-Universidad Pontificia Comillas, Madrid, 1997.
- GOWLLAND-DEBBAS, V., *The Problem of Refugees in the Light of Contemporary International Law*. Martinus Nijhoff, La Haya, 1996.
- IGLESIAS BUHIGUES, J.L.: *La noción de supranacionalidad en las Comunidades Europeas*. *Revista de Instituciones Europeas*, 1(1), 1974, 73-120. or.
- LENAERTS, K., “The contribution of the ECJ to the Area of Freedom, Security and Justice”, *International and Comparative Law Quarterly*, Vol. 59/Abril, 2010, 255–301.or.
- LÓPEZ GARRIDO, D., *El derecho de asilo*. Ed.Trotta-Ministerio de Asuntos Sociales, Madrid, 1991
- LÓPEZ-ALMANSA BEAUS, E.: “El sistema europeo común de asilo a examen”. Reig Fabado, I. (dir.), *Libertad de circulación, asilo y refugio en la Unión Europea*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2014, 42-67.or.

- MANGAS MARTÍN, A. (dir.): *Carta de los derechos fundamentales de la Unión Europea. Comentario artículo por artículo*. Fundación BBVA, Bilbao, 2008.
- MANGAS MARTÍN, A., LIÑAN NOGUERAS D.J., “*Instituciones y derecho de la Unión Europea*” (8ª edición). Ed. Tecnos, Madrid, 2015.
- MARIÑO MENÉNDEZ, F.: “*El concepto de refugiado en un contexto de Derecho Internacional general*”, REDI, no 2, 1983, 337-369.or, esp.
- MARTÍN ARRIBAS, J.J., *Los Estados europeos frente al desafío de los refugiados y el derecho de asilo*. Ed.Dykinson-Universidad de Burgos, Madrid, 2000.
- PÉREZ BARAHONA, S.: *El Estatuto de “Refugiados” en la convención de Geneva 1951*. Revista electrónica del Departamento de Derecho de la Universidad de La Rioja, REDUR, Logroño, N°1, 2003. 225-250. or.
- RESCIGNO, F., *Il diritto di asilo*. Carocci, Roma, 2011
- UÇARER, E.M., “Burden-Shirking, Burden-Shifting, and Burden-Sharing in the Emergent European Asylum Regime”, *International Politics*, no 43, 2006, 219-240.or.
- VARGAS GOMEZ-URRUTIA, M. (20 de Noviembre de 2015). “Asilo, Refugio y Protección Internacional. Acerca de las deficiencias del Sistema Europeo Común de Asilo (SECA) ante la crisis de los refugiados.” Impartida en la inauguración del curso académico 2015-2016. UNED. Egea de los Caballeros (Zaragoza).